



Energia kudeaketa eredu bateraturantz

Energia kudeaketa eredu jasangarrien berri eman zuten Lizarragan / 3

Altsasukoak urte bat preso

Asteartean urtea beteko da ferietako liskarragatik Guardia Civilak sarekada egin zuela. 20:00etan da hitzordua / 5

Pikuxar euskal txokoak elkarte eta taberna izateko proiektu berria du esku artean / 12-13

Irurtzungo San Martin festek larunbat betea ekarriko dute. Igandean, berriz, artisau azoka / 11

Ospakizun "inklusiboa" antolatu asmoz hartu du Iñigo Aritzak Nafarroa Oinezan lekukoa / 6

Sakanako gazte eguna hartuko du Ziordiak, bederatzi gazte asanbladek antolatuta / 11



Naiara Ijurko: "txikitako ametsa betetzen ari naiz. Beraz, ezin gehiago eskatu" / 23



Sakanako energia potentzialaren azterketa egin zeneko saioa. ARTXIBOA

SGArendako laguntza iritsi da azkenean

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) plan estrategikoa martxan jartzeko Nafarroako Gobernuaren finantziazioa jasoko zuela bazekien, baina dirua lastaila erdialdean jasotzeak haren jarduna baldintzatu du

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikokoan jasotako jarduerak eta ekintzak aurrera eramatea da Sakanako Garapen Agentziaren egitekoa. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen du. Aurten 330.434 euro izan dira. Gobernuak Sakanan egin beharreko inbertsio horri lastailaren 19an eman zion oniritzia.

Egoera horrek Sakanako Garapen Agentziaren jarduna baldintzatu du. Agentziako energia, industria eta zerbitzuak arloko teknikari Mikel Gaita Ansak azaldu digunez, “bagenekien etorriko zela, baina urte hasieratik gasturik eta kontrataziorik ez egiten saiatu gara. Gure orduak ematen zutena egin dugu soilik”. Orain, dirua badutela,

hainbat jarduera, kontratazioak eta lizitazioak egingen dituzte. Gainera, azaroko akaberarako jasotako diruaren justifikazioa aurkeztu beharko diote Nafarroako Gobernuari.

Gaitak esan duenez, “finantzazio faltak eragiten dituen eragozpenak gaindituta turismo, elikadura, industria eta energia sektoreetan egindako lanketa

urteko azkeneko hilabete hauetan ondorioak emanen dituzte proiektuen garapenarekin”. Gaitak esan duenez, aurten martxan jarritako “lanketa guztiei heldu den urtean segida emanen zaieenez, helburua 2018ko finantzazioa ahalik eta lehen ziurtatzea da, Sakanan modu eraginkorrean lan egiteko eta plan estrategikoan identifikatutako beharrei erantzuna emateko”. Foru administrazioak eskualdeen aktibaziorako planera diru gehiago bideratu du. Orain arte Sakanako Plan Estrategikoa zen handik finantzatzen bakarra, baina badirudi heldu den urtean eskualde gehiago izanen direla.

Lanean

Sakanako Garapen Agentziak lau sektoretan indarra egiten ari da: energia, industria, elikadura eta turismoa. Arlo bakoitzean hainbat lan ildo zehaztuta daude eta Gaitak esan duenez, “urte hasierako hilabeteak proiektu estrategikoetan garrantzitsu izan diren eragileak identifikatzeko eta haiekin lanketa egiteko erabili dira, beste ekintzak alde batera utzi gabe”.

Sektorez sektore proiektu “esanguratsuenak” zein diren azaldu digu: “**energiaren** arloan Lizarragako mikrosare elektrikoa da, udalaren autonomia elektrikoa ahalbidetuko duena eta urte bukaeran amaituko dena”. Ur biltegi zaharra araztegi ondoan egin den biltegi berri batekin lotu da eta zirkuitu itxi horretan ura mugituz argindarra sortuko da. Proiektu horri lotuta, Lizarragako argiteria publikoa aldatuko dute heldu den urtean. **Elikadurari** dagokionez, “*Dastatu Sakana* marka sortu da bertako ekoizle eta beste sektoreen arteko el-

karlana sortzeko balio izan duena”.

Industrian “e-HIERA proiektu estrategikoa da aurten garatu den ekintzarik handiena, eta hurrengo bi urteetan jarraipena izanen du”. Proiektu horretan Sakanako lau enpresa txikik hartzen dute parte, turbina hidrauliko bat eta hura kontrolatzeko kudeaketa sistema berri bat sortzeko helburua dute. Lidergoia Esekik izanen du eta bera arduratuko da mikro-sareen kudeaketaz. Iradi ingeniartzak lerro-turbina diseinatuko du eta garatzeaz Pergmasa eta Arania tailerrak arduratuko dira. Sor-tutako lerro-turbina eta kontrol sistema han probatzeko eta euren abantailak neurtzeko aukera legoke. Egitasmo hori 1,2 milioirekin lagundu du Nafarroako Gobernuak.

Turismoari dagokionez aurten Sakanako Donejakue bidea, bizikletendako ibilbidea, Arabako Lautadako Donejakue bidearekin lotzeko aukera zein izan daitekeen landu da. Lan hori Arabako Foru Aldundiarekin eta Arabako Lautadako udalekin batera egin da. Heldu den urtean memoria baloratua aurkeztuko da Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioiko *Camino naturales* programan sartu ahal izateko. Sakana zeharkatuko duen Donejakue bideak Eurovelo bizikletendako Europako sarearekin bat egingen du Arakilen.

"ORAIN PROIEKTUAK GARATUKO DIRA, EGINDAKO LANKETAREN ONDORIOZ"

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Naiara Ijurko piano-jolearekin bere ibilbideaz
- Victor Martirenari agur ekitaldia
- Pikuxar euskal txokoaren proiektu berriaz

www.guaixe.eus-en ON LINE



Bertako produktuei bulkatzeko *Sakana dastatu* marka sortu da.

Sakanako produktuak ezagutzeko bi ikastaro

Etxarriko eta Lakuntzako elkarte banatan izanen dira 16an eta 23an, Ismael Alegria sukaldariak emanda

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) ibarreko elikagaiak ezagutarazi eta balioa emateko lan-keta egiten ari da. Horren barruan, "Sakanan ekoizten diren jakiak prestatzea ikastea garrantzitsua izan daitekeela pentsatu dugu" esan digu Oskia Gorostiaga San Sebastian, SGako elikadura arduradunak.

Horregatik, sukaldaritzako ikastaroa antolatu du agentziak. Irakaslea Ismael Alegria izanen da, Lakuntzako Kale Txiki tabernako sukaldaria. Hari Xalok Zentruko Ana Carmen Huartek lagunduko dio, elikagaien onurak eta prestatzeko beste modu batzuk azalduz.

Bi saio

SGAk antolatutako sukaldaritzako ikastaroak bi saio izanen ditu eta bakoitzean hiru produktuekin plater bana prestatuko dituzte. Aurreneko saioa hilaren 16an, heldu den ostegunean, izanen da Etxarri Aranazko Hartzabal elkartean.

Joaten direnak, lehenik txahal mihi entsalada gazta fresko eta barazki ozpin-olioarekin prestatzen ikasiko dute. Segituan ahate bularkia patata "quenele"arekin nola egin ikasiko dute. Eta, azkenik, jogurt krematsua sagar marmelada eta fruitu lehorrekin nola egin ikasiko dute.

Bigarren saioa hilaren 23an izanen da, ostegunarekin, Lakuntzako Pertza elkartean. Lakuntzako lehenera irakatsiko den platera azalore krema arrautza

potxatua, karakolak eta zekale ogi apurrekin da. Bigarren platera, berriz, txerri solomoa irasagar glasatu eta fruitu lehor saltsarekin izanen da. Eta, prestatuntza saioa despeditzeko, sagar errea azukrearekin nola prestatu ikasiko dute joaten direnak.

Bai Etxarri Aranazko saioa bai Lakuntzako saioa 18:30ean hasiko dira eta, ondoren, afaltzen geratzeko aukera izanen du nahi duenak. Sakanako Garapen Agentziaren ikastaroa Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatu da.

Ikastaroan izena emateko

Sakanako Garapen Agentziatik ibarreko produktuak nola prestatu ikasteko saioetan izena emateko gonbidapena luzatu die sakandar guztiei. Jakinarazi dutenez, saioetako plazar mugatuak dira eta, horregatik, izena lehenbailehen ematea gomendatu dute.

Horretarako bi aukera daude. Batetik, ogorostiaga@sakanagaraten.com helbide elektronikora idatziz edo, bestela, 672688591 telefono zenbakira hots eginez.



Lizarragako kontzeju-etxera joan zirenak energia kudeaketa jasangarriari buruzko adibideak arretaz entzun zituzten.

Energia kudeaketa eredu bateraturantz

Energia sorkuntzan eta kudeaketan eredu berriak ezagutarazi zituzten herenegun Lizarragan. Sakanak Garapen Agentziak ibarrerako energia kudeaketa modeloa definitu nahi du hurrengo urtean

LIZARRAGA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) antolatuta, Lizarragako kontzeju-etxeak energia kudeaketa eredu berrien inguruko jardunaldia hartu zuen herenegun. SGako energia, industria eta zerbitzuak arloko teknikari Mikel Gaita Ansak argitu ziguzte, "udal eta kontzejuentzako energia kudeaketa sistema bateratu bat martxan jarri nahi dugu ibarrean 2018an eta jardunaldia energia sorkuntzan eta kudeaketa eredu berrietan azkeneko joerak ezagutzeko aukera izan da, hurrengo urterako nahi dugun modeloa definitzeko".

Hiru adibide

Jardunaldian Lizarragako mikro-sarea aurkeztu zen, "kontzejuaren autokontsumo elektrikoaren arrakasta eredu eta autonomia energetikoa lortzeko lehen pausoa". Ur biltegi zaharra eta kanposantu ondoan egindako biltegi berria lotu egin dituzte. Azken horretan eguzki plakak

jarri dituzte. Horiek sortzen duten argindarra gordeko da. Kontzejuak egunez argindar kontsumo txikia duenez, bildu egingen da eta gauez argiterian erabiliko da. Gainera, goian dagoen ura askatuz, turbinatik pasatuz argindar gehiago sortuko da, argiteriara bideratuko dena. Hala ere, badaezpada ere, Lizarragako argiteria sare orokorrera lotuta geldituko da.

Egin beharreko lanak eginda, Iberdrolak autokontsumo puntu gisa altan ematea falta dela azaldu digu Gaitak. Lanak 190.000 euroko aurrekontua dute. 90.000 gobernuak jarri ditu eta gainontzekoa kontzejuaren eta udalaren artean jarriko da.

SGA: UDAL ETA KONTZEJUENDAKO ENERGIA KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA NAHI GENUKE

Ibarreko udal eta kontzejuendako energia autonomia "eraginkorra eta onuragarria" lortzeko beste bi adibide eman zituzten jardunaldian.

Gipuzkoako hainbat herrietan ezarria dute udal energia eta ur kontsumoak kontrolatzen dituen kudeaketa sistema berri bat: eMehir software berria, "herri txikiendako eta eskualderako baliagarria izan daitekeena".

Bestetik, Leitzako Udalaren energia planaren berri eman zuten. Energia inbentario benetakoa egin zuten eta, egoera ikusita, hobekuntzetarako hiru urteko plana ezarri zuten. Udalaren argindar potentziaren egokitzarekin soilik "pila" aurreztu zuten, Esetek aholkularitza enpresaren zerbitzua pagatzeko adina. Leitzako kasuan ikusizenez, ahalegin txikiekin fakturan aurrezpen handia lortzen da, energia kontsumoa eta CO2 emisioak murriztearekin batera. Gaitak azaldu diguzte, "Sakanan antzeko zerbait egin daiteke."



ASTEKOA

RAF ATXURI

Xabier Mina

Noaindik gertu bada Otao herri ttiki-ttikia. Bertan sortu zen 1789ko Iraultza garaian Xabier Mina Larrea, nekazari aberatsen familian. Iruñean ikasi ondoren Zaragozan zegoelarik, Napoleonen inbasioari aurre egiteko Nafarroara itzuli zen, eta artean gazte bipila zelarik nafar "Corso Terrestre" zeritzan tropa osatu zuen. Gudu ekintza arrakastatsua gidatu zituen, Urbasako Bentan, tarteko. Frantses militarrek atxilo hartu ondoren Parisera eraman zuten eta lau urte preso eman eta gero mugaz honuzkaldera egin zuen, Fernando VII. aren aginte absolutistaren kontra egitera. Europatik zetozen ideia liberalak bereganatu, masoien pentsamenduak onartu eta Ingalaterratik Mexikora jo zuen; han independista matxinoekin bat egin zuen.

Mina mexikarren gerrillaburu izan zen, eta bere burua "espainiar liberal eta abertzaleztat" eduki arren grina osoz aritu zen Mexikoren askatasunaren alde harik eta espainiar militarrek atxiki zuten arte. Harako hartan ez zuen izan frantsesek eman zioten bizi-patua eta 1817ko azaroaren 11an espainiar militarrek fusilatu zuten. Egun Mexikon heroi nazionala da, eta haren izenean daude hainbat kale, etorbide nahiz unibertsitate. Gurean ezezaguna da.

Egunotan Elortzibarren omenaldi sorta bat eskaintzen ari zaizkio haren herrikideak. Tarteen, monumentu bat mustuko dute bihar sorterrian. Guanajuatoko buztinez egindako plakan nahualt hizkuntzan idatziriko testu bat ageri da. Espainiar estatuko aginteei absolutismo modernoa darien aroan, Euskal Herrian eta munduan Mina ohoratzea ez da alferrikako jarduna. Martirologiorik gabe baina askapen-oroimena landuz eta zabalduz.

HARA ZER DIEN

Nerabeen arteko drogen kontsumoa izugarri murriztu da Islandian

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Orain dela gutxi jakin dugu nola Islandian nerabeen arteko droga guztien kontsumoa murriztu egin den. Egun, Islandia Europako lehenengoa da bizitza osasuntsua daramaten nerabeen kopurua kontuan hartzen badugu. Adibide gisa, 15 eta 16 urte arteko gazteen artean, aurreko hilabeteen mozkortu denaren kopurua 1998an %42a zen eta 2016an %5a. Eta aipatzekoa ere kanabisa noizbait probatu dutenak %17tik %7ra jeitsi dela eta baita tabako erretzaileen artean jeitsiera egon dela %23tik %3ra, adin tarte horretan.

Nola egin da? Gizarte mugimendu baten bidez, "mozkor naturala" sortzen duen mugimendua, non jendea ekimen osasuntsuetan sortutako kimikarekin "jartzen" den.

Idea honetatik abiatuta eta diru-laguntza garrantzitsu bati esker, proiektua martxan jarri zen. Proiektuan parte hartzen zuten nerabeei ez zitzaion esaten terapia batean zeudela, beraien gustuko zerbait ikastera zihoazela baizik: musika, hip hop, dantza... Beraien burmuinetan kimika osasuntsua sortzea zen helburua.

Proiektu berritzaile hau "Islandiako gazteria" izendatu zuten eta estatu osoan ezarri zen. Legeak aldatu zituzten, 18 urte baino gutxiagokoek ezin zuten tabakoa erosi, alkohola erosteko 20 urte beteta izan behar zituzten eta bi substantzia hauen publizitatea debekatu zen. Familia eta ikastetxeen arteko harremanak sendotu ziren. Familiekin beraien seme-alabekin denbora gehiago eta "hobe" pasatzeko formazioa ere egin zen.

Ikastetxe eta familien artean adostu ziren hainbat kontu: festak, alkoholaren erabilera... 13 eta 16 urte arteko gaztetxoak ordu konkretu batzuetan etxetik ateratzeko debekatu zuten lege bat ezarri zen. Estatuak dirulaguntzak handitu zituen musika eskoletarako, kirol taldeetarako, eta bestelakoetarako. Diru sarrera gutxiago zituzten familientzat ere ekintza horietan parte hartzeko diru-laguntzak handitu ziren.

Gogoeta bat: zenbaitetan zaila da lehenengo prebentzioan emaitza kopuruetan ikustea, baina argi dago Islandiakoa adibide bat dela. Hor ikusten da zein garrantzitsua den prebentzioan oinarritzea, eta baita ere merkeagoa dela aurreikustea, ondorioak leuntzeko tratamenduetan gatzatzea baino.

GUTUNAK

Larri gaixo dauden euskal presoak etxera!

OLATZ ARBIZU ERIZAINA ALTSASUN

FERNANDA JORGE PALACIOS

ERIZAINA ALTSASUN

GORKA ARIAS SIERRA

ERIZAINA ETXARRI ARANATZEN

BEGOÑA URDANIZ LAPISTEGI

ERIZAINA ALTSASUN

GURUTZE GOIKOETXEA BARANDIARAN

GIZARTE LANGILEA ALTSASUN

Idatzi honen bitartez, larriki gaixo diren presoek eta bereziki, egun bizi duen egoera lazarriaren ondorioz,

Ibon Iparragirrenen etxeratzea eskatu nahi dugu. Azken egunetan jakitera eman da Ibonen bizia arrisku larrian dela. Abokatuek Ibonen etxeratzea eskatu dute, espainiar legedia betez, Ibonek etxean egon behar bailuke dagokion tratamendua jasotzen.

Baina espainiar justiziak zein espetxe zuzendaritzak pilota elkarri pasaz ari dira, eta oraindik orain, abokatuek ez dute eskariaren erantzunik jaso. Ibonen

egoera ordea ez da inoren erantzunaren zain egoteko modukoa. Ibonek ya! Eetxean egon behar du, gizateriagatik, duintasunagatik, bere eskubidea delako eta legediak berak ere hala agintzen duelako; ez da argudiorik ez Ibon, ez eta gainontzeko larri dauden presoak kartzelan mantentzeko.

Egun 13 dira karteletan larriki gaixo diren presoak, Mikel Arrieta orerretarra

luzeegia eta krudelegia den zerrenda honetara batu ostean. Bai Eusko Jaurlaritzak zein diputazio guztiek larriki gaixo diren presoak espetxetik kanpo egon behar dutela adierazi dute gehiengo osoz. Baina baita herritarren gehiengoak ere. Argi erakutsi dugu herri gisa giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen eraikuntzan urratsak emateko prest gaudela eta bide horretan salbuespen neurriak bertan

behera utzi eta presoek auzia behin betiko konpontzea ezinbestekoa da. Herri hau horretarako prest dago.

Horregatik gonbita luzatzen dizuegu datorren azaroaren 11an Basauriko kartzela eta osasun etxea batuko dituen giza-katean parte hartzera. Berandu baino lehen Ibon eta gainontzeko larriki gaixorik dauden presoak etxera ekarri behar ditugulako, azaroaren 11ean 12:00etan Basaurin elkartuko gara.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz
publizitatea@guaixe.eus

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Makinak jabetu dira plazaz eta San Martinetan jai gunea izateari utzi dio.

Berritze lanengatik Foru plaza hankaz gora dago

Aurrekontu parte-hartzaileen bidez aukeratutako lana da. Hasierako 35.000 euroak 154.000ean bihurtu dira

IRURTZUN

Irurtzungo Foru plaza berritzeko lanak pasa den astean hasi ziren. Hainbat tokitan zorua hondatuta zegoen eta hura konponduko dute. Horrekin batera, arkitektura-oztopoak kenduko dituzte: osasun etxeko estalpetik plazara zegoen koxka desagertuko da; Lizarra kaleko espaloitik plazara zegoen koxka ere kenduko dute; Lizarra kaleko eta frontoiaren atzeko aldeko parkeko sarreretan dauden baldosa "arantzadunak" egokiagoengatik aldatuko dituzte eta udaletxeko eta harmailetak eskailerak ohiko neurriera egokitu dira, egun daudenak motzak eta aldapatsuak direlako. Lan horiek despeditu ondoren, hiri-altzari berriak jarriko dituzte. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi digunez, lanek hilabete eta erdiko iraupena izanen dute.

Industrialdea

Inasa zena industrialde bihurtzeko lanak aurrera doaz. Festen ondoren hasi ziren eta aurreneko fasea despeditzeko hilabete inguru faltako dela jakinarazi digu alkateak. Haiek despeditzean sarrera egin egonen da eta hornidura sareak jarriak

egonen dira. Azken horiek bitan banatuko dira, Sapa enpresarendako eta industrialderako direnak. Larrazak aurreratu digunez, ilbeltzean kokatuko den enpresak beharrezkoak dituen argindar, gas eta bestelako azpiegiturak prest izanen ditu ordurako. Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu 560.000 euro (BEZ kanpo) balio duten lanak.

Larrazak aurreikusten du lehen faseko lanak despeditu eta segituan hasiko direla hurrengo hiru faseak. Nasuvinsa enpresa publikoa ari da industrialdea garatzen. Gobernuak garatuko duen industrialdea Arakilgo eta Irurtzungo 145.000 m² hartzen ditu. Baina Irurtzungo zatia garatzen hasi da oraingoz. 20 bat enpresa kokatzea aurreikusi dute eta, horretarako, 5,3 milioi euro inbertitzea aurreikusten du. Inbertsioa pabiloien salmenta eta alokairutik berreskuratu nahi du Gobernuak. Industrialdea egitean hango kaleak kamioien pasa herritik kentzeko balioko du. Gobernuak plana egin bitartean eta enpresen ezarpena aurreratzeko, Irurtzungo Udalak Hiri-Jarduketara Plan Berezia onartu du, "lehen fasean lanei lege-babesa emateko".



Otsailean bezala, asteartean ere, protesta gisa herri guztiko argiak itzaliko dituzte. ARTXIBOA

Urtebete espetxean eginen dute asteartean

Adurrek, Jokinek eta Oihanek kartzelan segitzen dute, epaiketaren zain, aske dauden gainontzeko zazpi auzipetuak bezala. Auzia bera salatu eta askatasuna eskatzeko astearterako argi itzalaldia egin eta kontzentrazio handian parte hartzera deitu da

ALTSASU

Joan den urteko ferietan taberna batean bi guardia civilekin eta haien bikotekideekin liskarra izan zuten gazte batzuk. Liskarra izan eta hilabetera, azaroaren 14an, astelehenez, Guardia Civilak sarekada egin eta zortzi gazte altsasuar atxilotu zituen. Beste bat auzitegian aurkeztu zen. Haietatik zazpi espetxean bukatu zuten. Lau abenduaren 20an atera ziren, baina asteartean urte bat eginen dute espetxean Adurrek, Jokinek eta Oihanek.

Altsasukoak Aske plataformako kideek auzia salatu eta presoan askatasuna aldarrikatzeko hileko 14. egunero bezala, asteartean mobilizatzen deitu ditu altsasuarak eta sakandarrak. Astearteko hitzordua 20:00etan izanen da, Baratzekobide plazako arkupean ondoan. Jendea elkartzeko den bitartean orri txuriak banatuko dituzte.

Izan ere, protesta modura Altsasuko argiteria publikoa

20:15etik 20:30era itzaliko da. Ordu laurden horretan jende guztia egoki jarri eta orri txuria altxatzea eskatuko dute antolatzaileek. Denen artean urte bat, Altsasukoak aske! lelo erraldoia irudikatu nahi dute. Ilunpean orri txuriak ikusgarri izateko argi ultramorearekin argituko dute jendea eta eskutan dituzten orri txuriak, hau da, leloa nabarmenduko da horrela.

Zuhaitza

Itzalaldia bukatu eta gero auzipetutako gazteen gurasoen eta plataformako ordezkariak hitza hartuko dute. Urte beteko balorazioa egin ondoren gurasoek Baratzekobide plazako belardian zuhaitz bat landatuko dute. Plataformatik azaldu digutenez, "herrian auziaren inguruko mugimendu guztiak sortu duen sentimenduak irudikatu nahi ditu zuhaitzak. Herri guztiaren borrokaren sinboloa izanen da". Eta gaineratu dute: "zuhaitzaren zainak lurrean bezala, aldarri-

kapena herrian errotuta dago; herrian sortzen diren elkartasun sustraiak dira. Zuhaitzak, bestalde, herri bizia eta haren elkartasuna islatu nahi ditu". Baina astearteko hitzorduaren aurretik, ostiralero moduan, kontzentrazioaren hitzordua 20:00etan da, udaletxe parean.

Isunak

Sanjuanetan izen bereko ermita ondoan pankarta bat jarri zuten. Festen aurretik hiru pertsonak isun bana jaso zuten pankarta horregatik. Eta pankarta beragatik beste isun bat jaso zuten joan den astean. Bakoitzak 300 eta 600 euroko bi isun ditu. Guztiak 2.700 euro pankartagatik.

Fiskaltzaren 375 urteko espetxe zigor eskaera jakin zen garilaren 5ean, hasiera batean manifestazioa deituta zegoen, baina baimenik ez zenez, bertan behera utzi zuten deitzaileek. Hala ere, herritarrek manifestazioa egitea erabaki zuten eta guraso batek isuna jaso du.

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
			 948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti	ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Lesakako ikastolakoek aurtengo Nafarroa Oinez balorazioa egin zuten eta Iñigo Aritzakoak 2018koa aurkeztu zuten. NIE

SAKANA

Eneida Carreñok, Iñigo Aritza ikastolako lehendakariak, eta Ibai Iriartek ikastolako zuzendariak, Nafarroa Oinez 2018 aurkeztu zuten Iruñean ostegunean. Biek azaldu zuten, “gure ibilbidearen hasieran sortutako azpiegiturak zaharberitze baten beharrean daude. Horixe da besteak beste, aurtengo helburuetako bat. Hori eta gure hezkuntza eredu sendotzen eta zabaltzen jarraitu, ikastolan eta kalean, euskara eskolan bai, baina kalean ere ezaguna eta erabilia izan daitezen”.

Iñigo Aritza ikastolaren laugarren Nafarroa Oinez izanen da 2018koa. Ikastolen festa antolatzea bera erronka handia bada, Ikastolakoek erronka berria gaineratu diote: “Nafarroa Oinez inklusioa egitea”. Ikastetxe ordezkariek azaldu zuten, “urteak dira gure ikastolak inklusibitatearen aldeko apustua egin zuela, pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntza baten bidean eta ikasleen aniztasunari arreta jarritz. Oraingoan ikastola espazio fisikotik atera eta aisialdian benetako pausu kualitatibo bat emateko erronka abian dugu”. Beraz, Oinez inklusioa bat diseinatu eta garatzeko apustua egin dute.

Horregatik, antolatuko dituzten ekitaldi eta jarduerak guztiak inklusiboak izaten ahaleginduko dira. Dagoeneko hasi dira, Lesakatik Altsasura lekukoa ekarri eta plazan harrera egin

Nafarroa Oinezek inklusioa xede

Nafarroako ikastolen festan heldu den urtean ateratzen den dirua azpiegiturak zaharberitzera bideratuko dituzte, baita hezkuntza eredu sendotzera. Festak Bizi leloa izanen du. Saioa Lizarragak egindako logotipoa aurkeztu zuten ere.

zietenean, zeinu hizkuntza mezu eman zuen itzultzaile bat izan zen esatariaren ondoan.

Leloa eta logoa

Leloa *Bizi* da. Esan zuten, “lelo laburra eta ausarta, gure ustez indar handia duena, alai, irekia eta positiboa. Ilusioa, indarra eta gogoia adierazten du bote-lasterrean, eta, hain zuzen ere, leloak duen zabaltasuna da bere indar nagusia”. Gaineratu zuten, “bizi” hitzak “gutako bakoitzak sentimendu, bizipen edota ideia batekin lotzen du; ez du, zertan, berdina izan behar. Horregatik, jende asko leloarekin identifikatua sentituko dela uste dugu”.

Ospakizunaren irudia Saioa Lizarragak egin du, ikastolako ikasle ohiak. Elementu zentrala lore bat da. “Baina lore horren eraikuntza Iñigo Aritza ikas-

Nafarroa Oinez denda zabalik

Iñigo Aritza ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez festako aurreneko kamixetak, sudaderak, motxilak, eskularruak, boligrafoak, ur botilak, metxeroak eta bestelakoak saldu dira. Ostiralean mustu zuten ikastolako kideek Altsasuko udaletxe ondoan, Solana kalean, zabalduko denda. Irekitze ekitaldian Patxin eta Potxin pailazoen parte hartu zuten eta ondoren auzatea izan zen. Denda astelehenean larunbatera arratsaldero zabalik egonen da, 17:00etatik 20:00etara hain zuzen ere. Eta goizez erosketak egiteko asteazkenetan eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara pasa daiteke handik.



Ostiralean jendetza elkartu zen dendaren mustutzea. UTZITAKOIA

Etako aurkezpena

Nafarroa Oinez ostiralean Altsasun aurkeztuko du festa, leloa eta logotipoa. Horretaz aparte, atera duten arroparekin moda desfilea egingen dute.

tolaren eta Oinezaren hainbat zutabe ikusi ditzakegu. Lehenik, leloarekin lotura zuzena duen bihotza ikusi dezakegu, lorearen petaloek itxura hori baitute. Bigarrenik, lau bihotzez osaturiko lorea da, Iñigo Aritza osatzen duten lau herriak irudikatu nahi ditugulako: Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia”. Azken horiek bakoitzak kolore desberdin bat du. “Petaloak zirkulu batean elkartzen dira, zirkulu batek lotzen ditu. Izan ere, gure ikastola elkarlanean dagoen komunitate baten gisara irudikatzen dugu, hainbat sektorez osatua: ikasleak, gurasoak, irakasleak, gainontzeko langileak... Denok elkarloturik gure helburuak lortzeko”.

Proiektua

Iñigo Aritza ikastolako komunitatea lau herriko familiek osatzen dute. 369 ikasle guztira, horrela banatuta daudenak: 39 0-3 zikloan, 68 Haur Hezkuntzan, 152 Lehen Hezkuntzan eta 110 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Ordezkariek azaldu dutenez, “proiektua sortu zenetik Iñigo Aritzak oso argi izan du zein den bere helburua: euskara eta euskal kulturaren aldeko etengabeko proiektua bultzatzea da, herritik sortua eta herriaren-dako. Euskal Herrian hain gurea dugun kooperatibismoan oinarrituz eta elkartasuna, auzolana eta elkarlaguntza bultzatzen duen proiektua du xede”.

Nafarroako ikastolen aurkezpen ekitaldia Altsasuko lortia kultur gunean izanen da, ostiralean, 18:00etan eta 19:30ean. Sarrera dohainik da, baina gonbidapena jaso beharra dago.

El Martinet eskolarekin txundituta gelditu ziren

Arbizuko eskolako langile eta gurasoei esker bertako eredu sakontzen egon ziren hainbat sakandar

ARBIZU

El Martinet eskolak 2002 urtean zabaldu zituen bere atea, eskola publikoa da eta 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako ikas-tetxea da. “Kanpotik oso zatarra da, tristea, baina El Martinetek barruan sekulako altxorra ezkutatu du”. Hori aipatu digute Arbizuko Herri Eskolakoek. Izan ere, lastailaren 21ean El Martineteko eskola bisitatzeko aukera izan zuten hainbat sakandarrek, Arbizuko Herri Eskolako langile eta gurasoei esker. Sakandarrak aurretik ere izanak ziren bertan.

“Ezin izan dugu burutik kendu ikusi eta sentitutako guztia. Zaila da hitzekin, hori guztia azaltzea. Bertan sartzerakoan, ametsetako mundu batean bezala barneratzen zara, hezkuntzarako ideal bat” gaineratu dute Arbizuko Herri Eskolakoek. Bizirik dagoen gune bat da El Martinet, haurrei begira egokitzeko prest dagoena. Haurrek adierazten dutena kontuan harturik sortua dela azaldu digute.

Bertako langileen prestakuntza eta konpromisoa “miresgarria eta eredugarria” dela adierazi dute Arbizutik, eta haurren erritmoak errespetatuz esperimentazioa, ikerketa, sormena, ekimena eta lankidetzaren esparruak luze eta sakon garatzeko aukerak eskaintzen dizkiete haurrei, estetikoki oso zaindua eta txukuna den espazioan. “Proiektua haur bakoitzaren garapen momentuari begira egokituta dago; horrek bere autonomia lortzen laguntzen du” gaineratu digute. Umearen behar eta interesetara egokitutako espazioek osatzen dute El Martinet: harremantzeko, ikeretzeko, bakardadean egoteko eta konpartitzeko espazioak, besteak beste. Eta natura-baliabideak nonahi.

Arbizurako

Arbizun eskola berriko lanak hastear daude. Eta El Martineten ikasitakoa bikain etorriko zaie espazio berria atontzeko orduan. “Halako hezkuntza eredu bat existitzen dela jakiteak ilusio handia egin digu, eta hezkuntza



El Martinet bisitatu zuten batzuk. UTZIA

publikoan aurrera eramatea posible dela ikusteak. Itzaropenez itzuli ginen, haurren beharretara benetan pentsatua dagoen horrelako eskola bat posiblea dela jabetuta” adierazi dute. “Ume batendako ametsetako eskolaren erreplikarik hurbilena da hura, eskola horrek umea zoriontsu sentiarazteko baldintzak dituelako. Ez al dute gure seme-alabek gutxiago merezi?” diote Arbizuko herri eskolakoek.

Bidelagun elkarteko kideendako doako prestakuntza

Bidelagun turismo elkarteko 31 kideak prestakuntza saioa izanen dute Hiriberriko kontzeju etxean azaroaren 21ean, 16:00etatik 19:00etara. Bezeroari arreta eta gatazken kudeaketa gaien inguruan ariko dira. Doako prestakuntza sail batean lehena izanen da aipatutako hori. Hurrengo urtean gehiago izanen dira, izan ere, Bidelagun turismo elkarteak Laboral Kutxarekin hitzarmena sinatu. Finantza erakundea arduratuko da Sakanako turismo sektoreko eragileei trebakuntza emateaz. Horretarako hitzarmena sinatu dute Bidelaguneko presidente Alfonso Nuñez eta Laboral Kutxako ibarreko ordezkariak Irurtzunen berriki.

Errigora, asteazkene arte eska daitezke kutxak

Sakanan barna hainbat puntutan eta www.errigora.eus web orrian egin daitezke eskaerak. Nafarroako hegoaldeko produktuak hango euskalgintza laguntzeko

SAKANA

Errigora elikadura burujabetza, euskara eta Nafarroa ardatz dituen ekimena da. Nafarroako hegoaldeko baratzeetako produktuak zabalduz eta salduz herrialdeko hegoaldeko euskalgintzarendako dirua lortzen du *Euskarari puzka* kanpainarekin. 25 ekoizleren produktuak jasotzen dira salgai dauden kutxetan. Asteburuan Ablitasen egindako auzolan handian Errigorako kutxak, txuriak eta beltzak, produktuz bete ziren. Eta, dagoeneko, banatzeko prest daude. Baina aurretik eskaerak egin behar dira eta hori asteazkene arte egin daitezke.

Ekimenaren berri herriz-herriz emateko Errigora karpas batetik bestera dabil eta, esaterako, Andra Mari ikastolara astelehenean iritsi zen. Eguraldiak ez zuen karpas uzten jarri, baina bai informazio mahaiak. Hura “mobilizazio eta herrilana indartu dituen zubigintza ariketa; karpas



Porrotx Ablitasen izan zen. UTZITAKOIA

aitezkiat hartu eta eskuz esku elkarbanatzen ari garen testigua”. Bestalde, Errigorak *Eskutik Eskura* kanpainaren bidez, oliba olioia eta konterba ontziak salduko ditu udaberriaren eta dagokion kanpaina eginen dute.

Errigorako kutxak eskatzeko tokiak

Herria	Tokia
Irurtzun	Pikuxar Iratxo elkarte
Ihabar	Elkarte
Irañeta	Elkarte
Uharte Arakil	Mendikoa kafetegia
Lakuntza	Tania arrandegia Bitori janari-denda Aliprox
Etxarri Aranatz	Portuko okindegia Kaxeta liburu-denda
Bakaiku	Elkarte
Iturmendi	Aitzkozar elkarte
Urdiain	Mareo taberna
Altsasu	Portuko okindegia Biltoki taberna
Olazti	Barandi taberna
Ziordia	Etxaleku taberna
Sakana	Ikastolak
Sakana	AEK
Sakana	www.errigora.eus



ZURE
NEURRIRA
EGINDAKO
BIDAIK

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com



UGC elkarteko kideen prentsaurrekoa.

EAJrendako "aberrazioa" da alkatea hala grabatzea

Guardia civil batek Altsasuko alkatea baimenik gabe grabatu du. Gaia Senatura iritsi da

ALTSASU

Victoriano Gallastegik, EAJko senatariak, Barne ministro Juan Ignacio Zoidori guardia civil batek Altsasuko Javier Ollo alkateari egindako grabazioaz galdetu zion asteartean, gero web-hedabide bateko bideo batean argitaratu zenaz. Gallastegirendako guardia civilaren agente batek "haietako askoren izenean eta ordezkari moduan", izan zuen hizketaldia baimenik gabe grabatu izana "aberrazioa" dela esan zuen. Grabazioa egiterakoan "alkatearen eskubideen aurka egin izana" leporatu zion agenteari. Aldi berean, EAJko senatariak ministroari galdetu zion grabaketa ontzat hartzen duen eta horren aurrean zein neurri hartzeko asmoa duen.

Baina Zoidok duela urte bete Altsasun bi agente zaurituta atera ziren liskarrean "biktima izan zirenekin baino erasotzaile izan zirenengandik hurbilago zaudela ematen du" erantzun zion EAJko senatariari.

Asteartean Gallastegik galdetu zuen: "nola da posible Estatuako langileek osatzen duten elkarte batek, euren burua eskubide eta askatasunen defendatzailetzat definitzen duen elkarte batek, hauen kontra jokatu izana?"

Ikastolarendako udal laguntzak aztertzeke eskatu du PSNk

Alderdi sozialistak Nafarroako Kontu Ganberari eskaera egin dio: "Iñigo Aritza zentro pribatuak egindako gastuak udalak bere gain hartu dituela jakin dugu. Azalpen politikoez aparte legalki aztertzea merezi du". PSNko hezkuntzako bozeramaile Carlos Gimenez iritziz "Eskola Publikoarekiko bidegabekeria da udal diru publikoarekin zentro pribatuen gastu korronteak edota eraikuntzako mantentze eta hobekuntza lanak udal diru publikoarekin ordaintzea". Horregatik, alderdi sozialistak azken sei urteak aztertzea eskatu dio Nafarroako Kontu Ganberari, "araudia betetzen duten aztertzeke".

Tabernaren filma Gerra Zibilaz hitz egiteko hizpide TVEn

Helena Tabernak zuzendutako *La buena nueva* filma emanen du La2 kateak igandean, 22:25ean. Cayetana Guillen Cuervok aurkezten duen Version española saioaren barruan izanen da emaldia. Francok estatu kolpea eman zuen egun berean Altsasura iritsi zen Mariano Aierra apaizaren *No me avergonce del evangelio* liburuan oinarritu zen zuzendari altsasuarrak filma egiteko. Taberna bera telebistako saioan izanen da. Eta berarekin batera, Javier Drona, historialaria eta Altsasu BHiko irakaslea. Azken hori gerraurreko Nafarroako elizaren historian aditua da eta *Con Cristo o contra Cristo* liburua argitaratua du

Altsasuko musika eskolaren kontratazioa deia

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak jakinarazi duenez, hizkuntza musikaleko irakasle postua betetzeko lan eskaintza egin du. Postua hartzen duen irakasleak eszedentzia bat beteko du. Deialdiari buruzko informazioa behar dutenek eskolatik pasa, 948 564 581 telefonora hots egin edo e-postara mezua bidali: musikaeskola@altsasu.net.

Zubillaga beatifikatuko dute Madrilen bihar

Joaquin Zubillaga Etxarri pouldar fraidea Paracuellos del Jaraman fusilatu zuten. Bera beatifikatzen duten bosgarren gizonezko sakandarra izanen da. Guztiak 1936ko estatu kolpearen ondoren fusilatu zituzten errepublikaren aldekoek

ETXEBERRI

Paulgo Bizenetek (pauldarrak) eta Marillaceko Luisa sainduak (karitateko alabak) sortutako erakundearen 150. urteurrena dela eta, bi erakundeetako 60 kideren beatifikazioa egingen da Madrilgo Vista Alegre Arena jauregian bihar, 11:00etan. Ekitaldiaren buruan Angelo Amato kardinala izanen da, Sainduen Kausarako Kongregazioko prefektua.

Beatifikaziorako prestatutako egitaraua *fede eta karitate leku eta profeta* lelopean antolatu da. Gaur, 18:00etan harrera egin eta Mirarien Ama basilikan bezperak izanen dira. 19:00etan otamena. 20:00etarako kultur eskaintza prestatu dute, musika edo filma, aukeran. 21:30ean gau-beila hasiko da aipatu basilikan. Bihar, 11:00etan beatifikazio elizkizuna egingen da. 14:00etan bazkaria eta ondoren, 16:00etan martiritza ibilbidea egingen dute autobusez, 18:30ean El Cerro de los Angelesen otoitz egiteko. 20:00etan kultur eskaintza berria izanen da: bi musikal edo film bat ikusteko aukera. Martirien aldeko kontzertuarekin despedituko da larunbateko egitaraua 21:30ean. Igandean, azkenik, esker-emate eukaristia izanen da 10:30ean, Almudena katedralean, Carlos Osoro kardinala buru dela. 12:00etan kongregazioen karismari buruzko erakusketara bisita gidatuak eskainiz bukatuko da egitaraua.

Aurretik beste lau sakandar beatifikatu ditu eliza katolikoak. Lehenik Bernardino Irurzun Otermin domingotar fraide egitarretarra 2007ko lastailaren 28an. Ondoren, Saturnino Pascual Jaunsaras Zabaleta irurtzundarra eta Lorenzo Lizasoain Lizaso irintarra, biak ere fraide maristak eta 2013ko lastailaren 13an beatifikatu zituztenak. Azken Julian Villanueva Olza hiriberriarra izan zen, 2017ko lastailaren 21ean.



Joaquin Zubillaga Etxarri pouldar fraidea. UTZITAKOIA

ETXEBERRIKO FRAIDEA 13 URTEETAN AEBN, ERRESUMA BATUAN ETA ESTATUAN IZAN ZEN

Etxeberriarra

Joaquin Zubillaga Etxarri 1899ko ilbeltzaren 31n jaio zen. Josefa eta Zelestinoren semea jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten Etxeberriko Andra Mari elizan. Zubillaga Misioko kongregazioan edo pauldarranean sartzeko berebiziko garrantzia izan zuen bere ahizpa bakarra, Benita ahizpa, karitateko ahizpa izateak. Eta, horrekin batera, pauldarrek Etxeberrin 1918an egin zuten misioa.

Pauldarren kongregazioan boitoak 1922ko martxoaren 3an hartu zituen, Madrilen. Cuenca, New York, Potters Bar, Londres eta Iruñea ezagutu zituen kongregazioarekin. 1935eko agorriaren 21ean iritsi zen pauldarren Madrileko etxera.

Zubillaga anaiarengandik gaitasun nabarmendu dituzte pauldarrek: lanarekiko maitasuna

eta obedientzia. Horregatik, destino bakoitzean eginkizun berriak zituen eta ikasle edota Kongregazioko nobizioekin aritzen zen, zenbait eskulan erakusten eta eredu izateko. Ikasleen oroitzapenean etxeberriarren lasaitasuna, pietatea eta apai-zekiko errespetua. Apaizgai ziren ikasleekiko errespetua bazuen ere.

1936ko estatu kolpea Madrilen harrapatu zuen Zubillaga fraide pauldarra. Dakitenez Postas kaleko Peine ostatu merkean zegoen irailaren 11n, Elias aitak hara Gil Belaskoain anaia eraman zuenean. Azaroa hasierara arte bi fraideak ostatu hartan babestu ziren. Lasai antzean zebiltzan eta Oriente plazara arte pasiatzen zuten. Han Orcajo anaiarekin elkartzen ziren. Baina fraideak izatearen susmoa hartu zieten, galdeketa egin, atxilotu eta Modelo espetxera eraman zituzten preso. Azaroaren 16an Zubillaga San Anton espetxera lekualdatu zutenetako bat izan zen. Madrilen, Paracuellos de Jaraman, fusilatu zuten Zubillaga etxeberriarra 1936ko azaroaren 30ean, 37 urte zituela.

Martirenaren gorpua babestuta bueltatu da

1936an Iberon fusilatutako gazte uhartearren gorpuari harrera egin eta azken agurra familiak, herritarrek, lagunek, udal eta gobernu ordezkariak eman zioten larunbatean egindako azken agurreko ekitaldian

UHARTE ARAKIL

Victor Martirena Alegriak 22 urte zituela atxilotu zuten 1936ko estatu kolpearen ondoren. Pintaketak egitea eta errepublikaren bandera frontoian jartzea leporatuta preso eraman zuten Iruñera eta handik Iberoko Zurbao parajera eraman zuten, fusilatzeraz. 1936ko lastailaren 28an izan zen, duela 81 urte. 2015eko abenduan hobitiki atera eta hurrengo urtean identifikatu zuten arte ez zen bere berri gehiago izan.

Larunbatean Martirenari azken agurra emateko ekitaldia hartu zuen Uharthe Arakilek. "Herri honendako ez da poz egun bat, ezta gu senideondako ere ez. Gaurkoa Martirenaren gorpuzkiak merezitako atseden duina izateko eguna da. Bere garaian erakundeetako arduradunek uko egin ziotena, 2007ko abenduaren 26an onartutako Historia Memoriaren Legea bete gabe, justizia administratzean beste aldera begiratzen zuten". Hermogenes Goñi Martirenak esandakoak dira, bere osabaren gorpua zuen kutxa hartu eta gero.

Goñik galdetu zuen: "Frankismoaren biktima izan ziren hauek Espainiako Konstituzioke zein artikuluk lagundu eta babesten



Ekitaldi akaberann herrian dagoen eskulturaren eta hilerrian lore eskaintza egin zen.

ditu? Errepublikaren alde egiteagatik biziarekin ordaindu zuten. Euren konstituzioa zena Francoren sedizioak eta errebelamenduak deuseztatu zuen". Goñik Espainiako Gobernuak salatu zuen: "Gerra Zibileko biktimen eta haien familien aldeko inolako aurrekonturik edo laguntzarik ez du eman. Laguntzarik eta babesik gabe, ahaztuak segitzen dute ezpondetan eta hobi komunetan, inor haiez gogoratuko den zain, gorpuzkiak ateratzeko, identifikatzeko, gorpuzkia familiari bueltatzeko eta

ehorzketa duina izateko". Hori guztiak Konstituzioaren 155. artikuluko C apartatuan jasoa dagoela gaztigatu zuen.

Ekitaldian parte hartutako pertsona eta erakunde guztiei esker ona azaldu zien Goñik. Gogoan izan zituen Silverio Astiz Lakuntza alkate izandakoa eta haren seme Silverio Astiz Ezkurdia uhartearrak. Biak fusilatutakoak ere, baina gorpurik agertu ez dena. Euren senideei "babesa eta elkartasuna" adierazi zien. Osabari, "askatasunaren zerbitzari leiala" izateagatik

eskerrak eman zion eta bakean atseden hartzea opa zion. Ondoren, Seme-alaben plazan elkartutako guztiak hilerriko bidea hartu zuten, han azken agurra emateko.

Ekitaldian esandakoak

Ainara Aiestaran Ijurko Uharthe Arakilgo alkateak hildakoari zuzenduta etxera bueltan zelako ongi etorria egin zion. Hori posible egin zutenei eskerrak eman zizkien Aiestaranek. Nafarroako Gobernuari ildo berean lan egiten segitzeko eskatu zion. Aranzadi zientzia elkarteak "egiten duen lan handia eskertu" zuen, "zuen lanari esker gaur hemen Martirena zena dugu". Osaba berreskuratzeagatik familia zoriondu zuen. Azkenik, alkateak esan zuen: "euren senideen bila dauden familia asko gelditzen dira. Egun batean lapurtu zieten duintasuna berreskuratzen saiatzen ari direnak". Haiei "babesa, animoa eta elkartasuna" adierazi zien eta lanean segituko duela jakinarazi zuen. Astiz aita-semeen gorpua berreskuratzea falta da.

Ana Ollo Uhalde Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariarendako larunbateko moduko ekitaldiak "errekonozimendu eta erreparaziorako bidean ezinbestekotzat jo" zuen. Eraildakoaren familiari eskerrak eman zizkien "memoriaren garra piztua mantentzeagatik eta senidea opatzeko desioa ez baztertzegatik". Izan ere, gorpua familiari emateko ekitaldiarekin "gobernuak biktimek Egia, Justizia eta Erreparazioa lortzeko duten eskubideari erantzuteko aukera berria" izan zuelako. Ollok esan zuenez, "biktimei kasu egin, gizarte justuago bat eta etikoago bat erai-

kitzerakoan memoriak paper garrantzitsua jokatu behar duenaren uste osoarekin. Iraganari begirada kritikoa, gertakari izugarri haiek etorkizunean berriro ez gertatzeko berme izan dadin". Kontseilariak "giza eskubideak urratzen dituzten indarkeriazko gertaerak berriro ez errepikatuzko" lan egitera animatu zuen.

Ollok "memoriatik, elkarbizitza erreala eta bidezkoa lortzeko helburuz lan egitera" deitu zuen. Gobernuak memoriarekin duen konpromisoa berretsi zuen. Aldi berean, aitortu zuen gobernuaren lanak familia eta memoria elkarte askoren egitekoan duela oinarria. Memoria Institutuak "memoria politika publikoak koordinatzeko proiektua" dela nabarmendu zuen.

Aranzadi zientzia elkartearen izenean **Lurdes Errastik** hartu zuen hitza eta han Martirenaren gorpua izateaz zoriona adierazi zuen. "Baina ez da beti lortzen. Iberon 2015eko abenduan egindako indusketan, lehenengo hobia zegoen. Baina zoritxarrez berarekin batera zihoazen uhartearrak ez genituen opatu". Errastik nabarmendu zuenez, "saiatuta ere, beti ez da lortzen" gorpua berreskuratzea. "81 urte pasa dira eta denbora horrek kalte handiak eragin ditu hobiak dauden tokietan eta pertsonen memorian. Baina kasu honetan pozik gaude Martirena berriro ere bere herrira ekartzeagatik".

FUSILATUAK IZAN ZIREN SILVERIO ASTIZ AITA-SEMEEN GORPUA EZ DIRA AGERTU ETA GOGOAN IZAN ZITUZTEN



SUWOW

SUV TRINKO BERRIA

CITROËN C3 AIRCROSS

Leku gehiago, modularitate gehiago
#Aukeragehiago

520 l. maletategia
Modularitate marka
Citroën Advanced Comfort
Atzeko eserleku irristakorrak
Gidatzeko 12 laguntza
Personalizaziorako 85 aukera
Jetsierako kontrolerako Grip kontrola



130€/HILABETEKO
47 kouta. Sarrera 3.516.93€
TAE:7,96%.Azken kuota 8.079,67€
Eskaintza 2017/11/30 arte

4 URTE
MANTENIMEDUA BARNE

citroen.es

CITROËN nahia du **TOTAL** KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) CO2 ISURIA (G/KM): CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0 - 5,6 / 104 - 126 (1) PVP Penintsula eta Balear irletan aholkatutako prezioa C3 Aircross PureTech 82 Feel 14.725€ (zergak, garraioa eta eskaintza barne), PSA Financial Services Spain, EFC, finantzatzen duten bezero partikularrentzako eta 48 hilabeteko iraunkortasunarekin. Finantzial onarpenari lotuta. 48 hilabeteko kontrato bateko iraupenerako eta 50.000km-erako. Irekiera gastuekin finantzatutako kapitala: 11.650,79€. Irekiera gastuak: 442,72€. TIN: 6,4%. Zor den zenbatekoa: 14.189,67€. Epeka prezioa: 17.706,6€. Kontratoaren amaieran ibilgailua itzuli edo azken kuota berfinantziatu aukeratu da. Prezioak Idealdrive zerbitzuaren kontratazioa barne du, eskura ordaindutako 1.025€-ren truke (erabilera arruntetan markak prekonizatutako errebisioak, piezak desgaztea salbu eta lan-orduak barne), 48 hilabetetan edo 50.000km (gertatzen den lehenbizikoa). Estaldurak/ eskubideak kontsultatu www.citroen.es-en edo kontzesionarioan. Finantzatu ez duen bezeroarentzako prezioa: 16.225€. eskaintza 2017/11/30 arte. Ikusgai dagoena: C3 Aircross Shine berria 17.600€tik hasita. Bertsioen arabera ekipamendu erabilgarriak. Automóviles Citroën España, S.A. c/Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIF:A-82844473

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

Lakuntzako Pertza elkarteko bazkide eguna

Bihar eguerditik aurrera zer ospatu izango dute Lakuntzako Pertza elkarteko 490 bazkideek. Sokatira eta aizkolari neurketen ondoren, bazkaria eta bazkalondoko kantaldia izanen dira bihar, etzi, hildako bazkideak gogoan izanen dituzte

LAKUNTZA

Lakuntzako Pertza elkarteak 490 bazkide ditu. 1963-1964 urteen artean sortuta, tamaina handiko elkarte da, ia herritar guztiak hartzen dituena. Elkartearena da, besteak beste, abuztuko Lakuntzako Pertza erromeria antolatzearen ardura eta San-sastinetan danborrada antolatzearena.


Baina festa ezagun horietaz kanpo, urria edo azaro aldera bazkidearen eguna antolatzen du elkarteak. Aurten azaroaren 11n izanen da, larunbatarekin.

Goizeko 12:00:00etan hasiko dira ekitaldiak, herri kirolekin. Izan ere, Nafarroako Sokatira



la herri erdia da bazkidea. ARTXIBOA

Txapelketako jardunaldia hartuko du Lakuntzako Behar-Zana frontoiak, eta aizkolarien emanaldia (ikus 19. orria). Tartean, elkartearen eskutik auzatea izango da bertan eta, ondoren, bazkaltzera bilduko dira elkarteko bazkideak. Edaria eta kopak Lakuntzako Pertza elkarteak jarriko ditu. Bazkalostean akordeoi doinuekin kantatzeko aukera izango dute bildutakoek eta jai giroak aurrera jarraituko du. Bestalde, eta zenduak dauden Lakuntzako Pertza elkarteko bazkide guztiak gogoan, igandeko Lakuntzako meza, goizeko 11:00etan hasiko dena, euren aldekoa izango da.



ARTXIBOA

Bakaikuko elkartearen eguna

Bakarrekotzea elkartearen eguna ospatuko dute bihar. Ospakizuna poteoarekin hasiko dute 13:30ean. Mahaira bazkaltzera 14:30ean eseriko dira. Helduak musean eta bingoan ari diren bitartean haurrendako tailerrak izanen dira, 15:30etik 18:30era. 19:30ean auzatea izanen da eta Tirri eta Terry dj-ren dantzaldia 22:00etan hasi eta 02:00ak arte iraunen du.

2017

48 urdaiazpiko banatuko ditu Sakanako Dendari Ostalari eta Zerbituzen Elkarteak **azaroaren 13tik 30era elkartearen** dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Erosketa egiterakoan **txartel bat bete beharko da** zozketan parte hartzeko.

Zozketa abenduaren 15ean egingo da

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

 SAKANAKO Dendari, Ostalari eta Zerbituzen Elkarteak

LABORAL  KUTXA

 ADE Altsasuko Dendarien Elkarteak Asociación de Comerciantes de Altsasu

 SEGURA IRRATIA # 98.99.2 SEGURA (Gipuzkoa)

AZAROKOTEA

**SAKANAN EROSI
ETA URDAIZPIKO
BAT IRABAZI!**

**Azaroaren
13tik 30era**

48 urdaiazpiko jokoan

ALTSASUN: Allianz Seguros; Arquitectura Javier Flores S.L.; Asensio Moda; Boutique Ekin; Cafetería Akeita; Calzados Bengoetxea; Carnicería Aldasoro; Carnicería Sorkunde; Cocinas Santa Cruz; Cortinas Izara; Deportes Intxostia; Deportes Lezea; Electricidad Ramos; Electrodomésticos Ramos; Frutería Cristina; Gertu Sakana Sdad. Coop; Iker Kirolak; Joselen Moda; Joyería Norte; Larka Emakumea Gizona; Lasa Kirolak; ARKATZ Liburudenda; Luresu; Mari Carmen; Marigorri; ML Moda Hombre; ML Moda Mujer; Muebles Santa Cruz; Óptica Sakana; Sare Calzados; Tu tienda especial; Txartel; Txikitxo; Xagu informatica.

ETXARRIN: Argiro Optika; Barberia Iñaki Ileapaindegia; Comercial Etxarri Muebles Etxarri; Etxarri Hortz Klinika; Hostogorri Altzariak; Kaxeta Liburudenda; Kume; Lizardi; Sabando

LAKUNTZAN: Autoservicio Juncal; Isidoro Arregui Harategia; Tania Arraindegia.

OLAZTIN: Pako Harategia; Farmazia Olatz Etxagibel

48 urdaiazpiko banatuko ditu Sakanako Dendari Ostalari eta Zerbituzen Elkarteak **azaroaren 13tik 30era elkartearen** dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Erosketa egiterakoan **txartel bat bete beharko da** zozketan parte hartzeko. **Zozketa abenduaren 15ean egingo da**

Sakanako gazte eguna ospatuko da bihar

Ibarreko bederlatzi gazte asanbladek elkarrekin antolatu dute Ziordiko biharko egitaraua. Goizean lau mintegi izanen dira eta bazkal garaitik aurrera ospakizuna izanen da nagusi Ziordiko kaleetan



Sakanako gazte asanbladen ordezkariak egunaren aurkezpenan.

SAKANA

Lakuntza, Arbizu, Etxarri Arantz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko gazte asanbladek bat egin dute Sakanako gazte eguna antolatuz. Arakil-Irurtzungoa aurten kanpo gelditu da San Martin festengatik. Gazteek esan dutenez, "aisialdi alternatiboa eta herrietako gazteen problematikak lantzen dituzte guztiek".

Aurkezpenean esan zuten, "badira urte batzuk jada, Euskal Herriko hainbat gaztek, okupazioa baliatuz, kapitalari errotik

espazioak kentzen eta herriari alternatibak eskaintzen hasi zirela. Espazio horiek gaztetxe bihurtu zituzten, autogestioan eta asanbladaren ideietan oinarritutako guneei bide eginez". Haien esanetan, "gazte haiek bizi zuten errealitatea eta gaur egun guk bizi duguna oinarrian berdin jarraitzen du sistema kapitalistaren baitan". Horregatik, "gaur egun ere gaztetxeak okupatzen eta gazte asanbladek herrietan kontraboterea sortzen jarraitu behar dute. Gazte asanbladak gazteen ahalduntzea ga-

Ziordiko egitaraua

- **10:30** Gosaria eta mintegien harrera, plazan.
- **11:00** Lau mintegien hasiera.
- **13:00** Prentsaurrekoa.
- **13:30** Trikipotea.
- **14:30** Bertso-bazkaria.
- **18:00** Gazte asanbladen arteko olinpiadak.
- **19:30** Manifestazioa: gazte borroka herri boterea eraiki.
- **20:30** Elektro Zarata elektrotzaranga.
- **22:30** Bokata-jana.
- **00:00** Kontzertuak Brutal Room, Nafarroa Gorria, Embajada eta gaupasa DJ-kin.

ratzeko eta etorkizuna borrokatzeko guneak diren heinean bizirik eta sasoitsu behar dute".

Egitarauan ez da dena ospakizuna izanen. "Borrokak saretzeko" lanaren, feminismoaren, euskararen eta errepresioaren inguruko mintegiak antolatu dituzte goizerako. Gazteak parte hartzera gonbidatu dituzte.

batzuk nabarmendu nahi dira: lotura afektiboak, desioak, fantasiak, autoestimua eta plazera sentitzeko beste modu batzuk. Sexualitatearen ikuspegi global eta osotua sustatu nahi da.

Zine-forumarekin hasi zen programa joan den astean. Gaur, 20:00etan *Pronostiko erreserbatua* kaleko klowna Foru Plazatik abiatuta. Hilaren 17an, 17:00etan sexualitateari buruzko ginkana, murala eta dastatze beroa, Intxostiapuntan. 28an *Lotsagabeak* antzezlan, ikasleendako.

Sexualitatea eta gazteak lotzen dituen programa, Gozamenez

Sexualitatearen ikuspegi globala landu nahi duen programaren barruan doako ekitaldiak antolatu dira

ALTSASU

Gozamenez programaren bidez gazteak haien sexualitatearen garapenean inplikatu nahi dituzte, "ideia murriztatzaileetatik aldendu eta eskaintzen dituen aukerak bizi ditzaten". Sexua-

litatearen kontzeptu murrizta zabaldu nahi da, askotan sexualitatea aparatu genitalera eta koitora mugatzen delako. Norberaren sexualiterako eta besteekiko harremanetarako garrantzitsuak diren beste alderdi



Buru handi eta erraldoien konpartsa. ARTXIBOA

San Martin patroiarekin festa txikien txanda iritsi da

Ospakizun handienak bihar izanen dira. Igandean, berriz, 25 artisau elkartuko diren azoka egingen da

IRURTZUN

Irurtzungo kultur kontseiluak eta udalak prest dute Sanmartinetako festa egitaraua. Neguko festetan aldaketa handiena plazan egiten ari diren lanek ekarriko dute. Haren ondorioz dantzaldia eta artisau azoka Gernika plazan egingen dira. Azken horretan 25 artisauk parte hartuko dute. San Martin herriko patroia da, baina Trinitatera pasa zituzten ospakizunak joan den mende erdialdean.

Artisauak

Igandean eguraldiak lagunduko balu Gernika plazan egin litzaiteke artisau azoka, bestela frontoian hartuko luke aterpea. Hona artisauen zerrenda: Ehoziri taldea, Jose Antonio Rekalde (zura), Saralegi (taloak), Josune Carrion (popinak), Ainhoa Sanchez (buztina), Sanu (Senegalgo artisautza), Brun forjariak, Maria Esparza (bitxigintza), Marino (eztia), Jose Luis Etxeberria (saskigintza), Creaciones Lidia (birziklatze artisautza, Josthari (ehungintza, poltsak...), Maika Heras (ehungintza), Josu Goñi (buztingintza, tailerra), Lorebiak (landareak, loreak), Amets tailerrak (erraldoiak, kilikiak), Bittor Arrieta (zura), Larrutan (larrua), Pello Olea (zura), Elvira La Peña (urregintza), Letzaetako ogia, Antsonea gaztandegia, Decristalia (beira tailerra), Mañeko (gozogintza), Ines Flores, (karamelizatutako haziak), Sojonatura (ukenduak) eta Enrique Quevedo (jostailuak)

San Martin festetako egitaraua

Larunbata 11

- **10:00** Dianak.
- **11:30** Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
- **13:30** Bi txerrikumeren zozketa, jubilatuek elkartean.
- **14:15** Jubilatuen bazkaria. Ondoren dantzaldia.
- **16:30** Mus txapelketa, Iratxon. 30 min lehenago itxiko da izen ematea.
- **17:30-21:30** Dantzaldia Tsunami taldearekin, Gernika plazan.
- Euriarekin, karpan.
- **19:00** Haurrendako txokolate-jana, zeliakoendako egokia.
- **21:30** Zezensuzkoa.
- **23:00** Kontzertuak Larrapin: Damned Ritual, Zakill, Ezurte eta Txartoak.

Igandea 12

- **10:30-14:30** Artisautza azoka, Gernika plazan
- **18:00** Haur antzezlan: Martinaren parke fantastikoa. Kultur etxean.
- **18:00** Gozogintza lehiaketa, Erga Larreak elkartean

IRURTZUN

Zer da Pikuxar euskal txokoa?

Hausnarketa sakon eta luze baten ondoren esan dezakegu euskalgintzan, kulturgintzan eta herrigintzan mugitzen den euskaldunen eta euskaltzaleen elkarte dela; euskararen normalizaziorako pausoak ematen dituen.

15 urte ditu, ezta?

Bai. Hasieran helburu batzuk ez zituen hain argi, ardatz batzuk bai, baina orain egin dugun hausnarketa sakon hau ez, behintzat.

Zergatik sortu zen 2002an Pikuxar euskal txokoa?

Irurtzunen ez zegoen tabernarik euskal musika entzuteko, gazteak elkartzeko. Guztiok Larrazpi gazte elkartetik edo Orritz dantza taldetik etortzen ginen. Kulturen mugitzen ginen. Elkartzeko toki bat eta taberna bat faltan sumatzen genituen. Horrela sortu zen, gehiegi pentsatu gabe sartu ginen abentura honetan.

Mabell taberna hutsik dago, goazen hartzera?

Gutxi gorabehera horrela izan zen, bai. Gainera, alokatzeko apustua egin genuen, ez genekialako nola aterako zen. Alokairuan orain arte egon gara.

Eta izena, nondik?

Bozketa egin zen. Hemengo toponimo bat da.

Nola antolatu zineten?

Zaila da. Elkarrekin bat ginelako eta elkarrekin taberna bat zeukalako. Gorabehera handiak izan ditugu tabernaren kudeaketarekin, inor ez garelako enpresariak. Kudeaketa ikasten joan gara. Azken bi urteetan bi pertsonaren artean daramate tabernaren kudeaketa eta besteok beste arlo batzuetan mugitu gaitezke. Bestela, zuzendaritza tabernarako zegoen.

Krisia egon da. Gizartearen oihura aldaketak. Ostalaritzak behera egin du. Piperok sortu dira. Telebista eskaintza izugarri zabaldu da. Iruñea gertu dago...

Bai, kristoren aldaketa sumatu dugu. Baita egoera pertsonaletan ere. Asko aldatu dira. Gazte izatetik, askoz ere ardura gehiago izatera pasa gara. Hasi ginean elkartekideek ez zuten umerik, orain pila bat dira. Egoera erabat aldatu da. Jaitsi zen tabernaren erabilera eta hori guztia, eta krisi momentu batean sartu ginen. Horrek guztiak Pikuxarreko kideak haus-

Pikuxar euskal txokoa, egoitza berria amets duen elkarte

ELENA BALDA SAN JUAN ZUZENDARITZAKO KIDEA

Pikuxarreko taberna eta elkarte izanen den proiektu berria dute esku artean eta informazio hitzaldian azaldu zuten ostiralean. Bazkide gehiago nahi dituzte



Goian Pikuxarren egungo egoitza. Behean barruko aldea.

narketa horretara eraman ginetuen.

Krisiarekin, eta gabe, kideak auzolanak egin izan dituzue proiektua aurrera ateratzeko, ezta?

Bai. Krisiarekin dirua behar genuen. Elkarrekin batzuetan tabernari laguntza ekonomikoa eman behar izan dio une horietan. Orain proiektu berria gauzatzeko, dirua ateratzeko helburuz, bestelako auzolanak egiten ari gara: tabernak hartuz eta beste.

15 urte. Gaur egunera arteko ibilbideaz zein balorazio egin duzue?

Behar bada zuzendaritza batzordean gaudenak optimistak gara, edo ilusio handiena dugunak gara, eta oso balorazio positiboa egiten dugu. Krisialdi momentuak izan ditugu eta buelta eman diogu. 15 urtetan mantentzen jakin dugu. Beraz, oso positiboa. **Zenbat kide ditu Pikuxarreko gaur egun?**

72 kide. Esan beharra dugu jendea sartzen hasi dela. 67 ginen eta bi astetan bost bazkide egin dira.

Hausnarketa horren ondoren ilusioa duzelako?

PLAN ESTRATEGIKOAN EUSKALGINTZA, KULTURGINTZA ETA HERRIGINTZA ARDATZAK DIRA

Jakina. Krisialdi horren ondoren lan ardatzak desberdinak sortu ziren. Eta hemen egoteko garaia, alokairuan, bukatuta zegoela ikusten genuen. Oinarri sendoak ditugu aurrera jarraitzeko eta lekuz aldatzea erabaki dugu. Etxe pila bat ikusi genituen eta herri erdian dagoen bat da gehien gustatzen zaiguna. Ematen dituen aukerengatik. Oso egokia da. Horren aldeko apustua egin dugu. Egoitza garestia da. Lan handia eskatzen du, baina bidegarria dela ikusi dugu.

Alokairutik erostera pasako zarete, beraz?

Hala da. Horrelako sendotasuna, edo elkarteari eta proiektu osoari seriotasun handiagoa ematea. Proiektua ez da bakarrik egoitza. Dirua eskatzen duena da. Baina proiektua da esandako guztia. **Euskalgintzan, kulturgintzan eta herrigintzan eragiteko egoitza proiektu bat nahi duzue.**

Hori da. Hiru urterako plan estrategiko bat egin dugu eta hiru ardatz horiek garrantzitsuenak zirela ikusi dugu. Horiek lantalde bihurtu ditugu. Beste lantalde bat egoitzaz arduratzen da, bestea diru-kontuez. Kontu potoloak eta kontu txikiak. Hori guztia kudeatzeko kudeaketa taldea dago. Eta guztion artean ongi komunikatzeko, komunikazio taldea. Beraz, bederati lantalde ari gara lanean. Horren gainean dago zuzendaritza batzordea eta, gorago asanblada orokorra.

Beraz, 72 kide horiek buru belarri ari dira. Eta hala segituko dute hurrengo hiru urtetan.

Hori da. Jende asko behar da. Momentuz 31 pertsona gaude lantaldeetan eta auzolanak egin behar direnean jendeak izena ematen du.

Egoitza. Zer duzue buruan? Nolako litzateke?

Pikuxar euskal txoko kide baikoitzak bere ideia dauka. Egoitza lantaldekoek hainbat arkitektoekin aurreproiektuak lantzen ari dira. Haiek euren proposamenak aurkeztuko dizkigute eta guretako egokiena dena aukeratuko dugu.

Beraz, ez dakigu ohiko elkarte, taberna edo kafe antzokia izanen den?

Beno, argi dugu alde batetik, taberna izanen dela eta, bestetik elkarte. Fisikoki banatuta egonen dira, beheko solairuan, goikoan, alde batean eta bestean... Diseinua? Ez dakigu.

Behoko eta goiko solairuak aipatu dituzu. Nolako eraikinaz ari gara?

Behoko planta eta bi altuera ditu. Horiek erabilgarriak dira. Diruaren arabera eraikiko dugu lehenengoa, bigarrena edo ahal dena eraikiko dugu.

Beraz, proiektuarekin aurrera epeka egiteko aukera ikusten duzue?

Bai. Oso positibo gaude eta ikusten dugu bazkide asko lortuko ditugula. Eta horiekin lortuko dugula eraikitzea nahi dugun guztia.

Bazkide kopuru muga batean pentsatu duzue?

Planteamendua aldrebes da. Sarrerarako diru kopuru bat markatu dugu, eta hortik ez pasatzea. 120 bazkidek zehaztutako diru kopurua jarriko balute horrekin egingen genuke. Ailegatzen garen neurrira. 120rako izanen da. Ez da izanen: proiektu hau eta halako jartzea tokatzen zaizue. Ez. Alderantziz izanen da.

Zehaztu duzuen diru kopuru horretara data jakin batean leudekeen bazkideekin iritsi nahi duzue.

Hori da. Une honetan salerosketa kontratua sinatu dugu. Bederatzi hilabete ditugu eraikina erosteko. Hilabete horiek ditugu zeinek jarraitu nahi duen aurrera edo ez erabakitzeke, edo zeinek sartu nahi duen.

Noizko gustatuko litzazueke Pikuxar berria mustutzea?

2019ko festetarako, adibidez. Sinatzen badugu, agorrilean lanean has gaitezke. Asmoa da auzolanean hainbat lan aurreratzea, aurrezteko. Ez dakit kalkulatu zenbat kostatuko den, urte bat edo?

Dena goitik behera jaso behar edo zaharberrituta?

Oraindik ez dugu erabaki nolakoa izanen den. Proposamen desberdinak daude. Baimenen arabera ahal duguna eraikiko dugu.

Demagun eraikina jada badugula. Euskalgintza, kulturagintza eta herrigintza ardatzak nola islatuko lirateke?

Talde bakoitzak bere urteko plana du. Euskalgintzakoak Aizpea Irurtzongo euskaltzaleen topagunearekin lanean ariko dira. Kulturagintzakoak Irurtzongo kultur kontseiluan izanen dira. Herrigintzakoak Irurtzongo taldeekin harremanetan izanen dira. Helburu batzuk finkatuta daude eta horiek lortzeko ekintza desberdinak ditugu. Printzipioz abendura artekoak

markatu ditugu eta gero heldu den urtekoak.

Ez da bere ziborrera begira egonen den elkarte bat. Kanpora begira eta irekia...

Guk Pikuxarren betiko filosofia eta baloreak mantendu nahi izan ditugu. Herrira irekitze bat da. Bazkideek une honetan eskatuko dutena da pixka bat barrurantz begiratzea. Hori uste dut dela izan dugun akats txiki bat. Orain planteamendua da bai kanporako, bai barrurako. Gainera, ikusten dugu hartuko dugun egoitzaren kokapena ezinbestekoa dela... Herriaren funtzionamendua, nolabait, aldatuko da.

Dagoeneko hasi zarete dirua biltzen.

Bai. Diru kontuen taldean diru kontu potoloez arduratzen dira batzuk, kredituak eta halakoez. Diru txikiar arduratzen dira besteak eta horiek ekintza horiek sortzeaz arduratu dira: Izurdiagako eta Ihabarko festetan barrak hartzea, aurrekoan Goazen ikuskizunaren emanaldia antolatu genuen... Ostiral gauero bokatak ematen ditugu. Langile bat finko lanean dago eta bi bazkide laguntzen. Zozketak eta halakoak ere egin dira. Horrela proiekturako dirua ateratzen ari gara.

Bazkideak behar dira. Euskalgintza, kulturagintza eta herrigintza aritzeko prest daudenak. Horretara ez daude denak prest!

Hori ere! Baloreen artean parte hartzearena dago. Guk elkarte mugitua nahi dugu. Orduan, auzolanak baloratuko dira. Penalizatu baino, egiten dituzun gauzei balore bat eman. Horrekin parte hartzea bulkatu nahi dugu.

Bazkide izan nahi duenak, Pikuxarretik pasatu beharko du, ezta?

Bai. Pikuxar elkarte bat da jada eta estatutuetan jasota dagoen moduan zuk izena ematen duzu, baina asanbladak onartu behar zaitu. 15 bat eguneko epea edo. Orain, gainera, erraztasunak ematen ari gara. Galdetegi asko e-posta edo Whatsapp bidez egiten ditugu hainbestetan ez elkartzeko.

AGORRILEAN HASITA, GUSTATUKO LITZAIGUKE 2019KO FESTETAN PIKUXAR BERRIA MUSTUTZEA

Eguberriko festak Sakanan erosiz prestatu

Bueltan da Azarokote kanpaina. Astelehenetik hilaren 30era Sakanako dendetan erosketak egiten dituztenak 48 urdaiazpikoren zozketan sartuko dira. Zozketa abenduaren 15ean egingen da

SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak Azarokotea kanpaina martxan du aurten ere. Elkarteko kide diren 48 establezimenduetakoren batean erosketak egiten duen guztiak 48 urdaiazpikoren zozketan sartuko da. Ordainketa egin ondoren norberaren datuekin eta harremanetarako telefonoarekin txartela bete eta establezimenduan utzi beharko dute. Txartela betetzen dutenek abenduaren 15ean jakinen dute zorionekoak diren eta urdaiazpikoa etxera eramanez duten.

Sakanako establezimenduek aukera zabala eta kalitatezkoa



Joan den urteko sarituak pozik jaso zuten urdaiazpikoa. ARTXIBOA

eskaintzen dutela eta eguberri erosketak ibarrean bertan egin daitezkeela, horixe nabarmendu nahi du elkarteak kanpainaren bidez. Sakanako Dendari, Osta-

lari eta Zerbitzuen elkartetik gaineratu dutenez, "ibarrean bertan erosiz Sakanako ekonomiari eta herriak bizirik mantentzeari bultzada ematen zaio".

Patata Operazioa egingen da igandean

Baratze eta soroetako produktuak jasoko dituzte Iruñeko Alegria peñako kideak Hermanitas de los Pobres egoitzarendako. Igande goizean izanen da, 09:00etatik aurrera Urdiain eta Satrustegi artean egingen dute bilketa

SAKANA

Iruñeko Alegria peñako 15 bat kide Sakanara etorriko dira igandean 55. Patata Operazioa egiteko. Haien segizioa eraikuntza enpresa bateko kamioi batez, mojen furgoneta batez eta hiru autoz osatuta egonen da. Eta herrietara sartzeko klaxonak jo eta patata operazioa bertan dela oihukatuz nabarmenduko dira beste behin. Peñakideek igandean hiriburuko Behartsuen Haurridetxoak kongregazioko egoitzarako jakiak bilduko dituzte. Baratzeek eta soroek emandakoa jasotzen dute, patataz aparte, kuiak, kuiatxoak, babarrunak, sagarrak, intxaurrak...



2016ko patata operazioa Urdiainen. ARTXIBOA

Peñako kideak Urdiainen hasiko dute bilketa 09:00etan. Etxarriara arteko bidea egin eta han gosaltzera geldituko dira. Ibilbidea berrekin eta Arbizutik

pasa ondoren, bigarrenez Unanura joko dute. Gero handik Satrustegira arte joanen dira. Peñakoek sakandarrei "eskuabalak" izatera animatu dituzte.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI.
gutunak@guaxe.eus

OSTIRALA 10

ALTSASU Nafarroa Oinezen aurkezpen ekitaldia eta moda desfilea.

18:00etan eta 19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Ping-pong txapelketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Tren sozialaren proposamena aurkeztuko du Sustrai Erakuntza fundazioak.

19:00ean, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Gozamenez programaren zentzumenen arratsaldean Pronostiko erreserbatua saioa eskainiko du Oihulari clownek.

20:30, Foru plazan.

ALTSASU La Ilamada filmaren emanaldia.

22:00etan, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Sorkunek kontzertu akustikoa emanen du Ziklomorphosia diskoa aurkezteko.

23:00etan, Barandi tabernan.



ARGAZKILARIAXXXX

ALTSASU Emakume modaren 100 urte.

Emakume janzkeraren garapena erakusten duen erakusketa prestatu du Iruñeko erreinuko etnografia museoak.

Azaroaren 15etik abenduaren 3ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur gunean.



ARGAZKILARIAXXXX

ALTSASU. 32. Altsasuko ferietako argazki rallya.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen erakusketa, non lehiaketara aurkeztutako argazkiak erakusten diren.

Azaroaren 11ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur gunean.

LARUNBATA 11

ZIORDIA Sakanako Gazte Eguna ospatuko da ibarreko gazte asanbladak antolatuta.

10:30etik aurrera.

ZIORDIA Gurasoendako Mindfulness tailerra, norberarekin zelan izan atsegina gure seme-alabekin atsegina izateko. Susie Martinek emanen du saioa, doan. Aurretik izena eman: 605 742 905.

12:00etatik 13:30era, Amarauna gunean.

LAKUNTZA Lakuntzako Pertza elkartearen bazkide eguna.

12:00etatik aurrera.

BAKAIKU Bakarrekotxea elkartearen bazkide eguna.

13:30etik aurrera.

ALTSASU Tejidos al tiempo dantza ikuskizuna eskainiko du La Choni konpainia flamenkoak.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Damned Ritual, Zakill, Ezurte eta Txartoak taldeen kontzertuak.

21:30ean, Larrazpi elkarte.

IGANDEA 12

ALTSASU El Villarko trikuharriak ezagutzeko ibilbidea egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.

07:15ean klubeko bajeratik, aurretik izena eman.

SAKANA Patata operazioa egingen du Iruñeko Alegria peñak.

09:00etatik aurrera, Urdiain eta Hiriberri artean.

UHARTE ARAKIL Iruñeko Asisko San Frantzisko parrokiako abesbatzak kontzertua eskainiko du eta, ondoren, bere kantuekin meza edertuko du.

12:00etan, Aralarko santutegian.

ALTSASU Ondina glups antzezlana eskainiko du Caleidoscopio teatrek.

17:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Martinaren parke fantastikoa antzezlana eskainiko du Producciones Maestras taldeak.

18:00etan, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL Mercedes Viñuelak, Cristina Lisok, Inma Biurrun eta Blanca Arrizabalagak poesia

errezitaldia eskainiko dute, Mikel Auzmendi gitarra-jolearen laguntzaz.

18:00, Donibane jubilatue elkarte.

ALTSASU La profesora filmaren emanaldia.

17:30ean eta 19:40ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU La Ilamada filmaren emanaldia.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Lenin en octubre filmaren emanaldia Errusiako

iraultzaren 100. urteurrena dela eta.

19:00etan, gaztetxean.

OSTEGUNA 16

ETXARRI ARANATZ Sakanako produktuak prestatuz sukaldaritza ikastaroa emanen du Ismael Alegria sukaldariak garapen agentziak antolatuta. Aurretik izena eman.

18:30ean, Hartzabal elkarte.

ALTSASU La reina Victoria y Abdul filmaren emanaldia.

19:00ean, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Nidos desnudos, indarkeria matxistaren dokumentalaren emanaldia.

20:00etan, kultur etxean.

ZORION AGURRAK



Rikardo
ZORIONAK etxekoan partez!



Rikardo
ZORIONAK etxekoan partez!

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Kompromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Emilitxu

Beti gure bihotzean

Iraizeko zure lagunak

ESKELA



Emilia Campos Castresana

Itxaropena ezin da giltzatu, gure bihotz minduetan libre da, zigortu arren bat egiten gaitu malko bakoitzean, pauso bakoitzean.

Maidarren eta Anderren launek.

ESKELA



Emilia Campos Castresana

Emi

Zure begiekin begiratzen gaituzte izarrek, orain handiagoak dira, eta gure maitasunarekin haizeak zure izena oihukatzen du.

Campostarrak

IRAGARKI SAILKATUAK

OPARITUTAKOAKA
Txakur bat oparitzen da, ertaina eta lasaia. Informazio gehiagorako deitu 629 885 429 telefonora.

OHARRAK
Haurren loa. Kafe tertulia Juanjo Kintela-ren eskutik. Haur psikologoa, psikomotrozista eta aholkulari pedagogikoa. Azaroak 29, 17:00etan, hitzaldi irekia. Kattuka haur eskola, 948 467 009, info@kattuka.com. Arbizu

Idazlearekin hizketan. Kirmen Uribe idazlea azaroaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da. Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko liburategiek antolatuta eta Liburutegi Zerbitzuak natorlatuta.

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzordua: abenduaren 14an izanen da, ostegunean, 19:00etan liburutegian. Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketak liburuz ariko dira hizketan.

Katalaneko mintzataldea. Katalanez ikasi eta/edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzataldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

Eplegarratasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakana Enpresariaren Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbi-

tzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Euskonews ekonomiko-laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

GoiEner Iruñean. Landa-errek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakana elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16

0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Euskaldun bat euro bat. Informazio gehiago: www.nafarroakoerresumakoa.com. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxuzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korronte zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Josefina Arregui kliniko bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK

- **Hector José Santana Veselinov,** urriaren 23an Altsasun
- **Bidatz Gastaminza Barrenetxea,** urriaren 24an Olaztin
- **Luar Takuabe Agerre Torrico,** urriaren 29an Lakuntzan
- **Urkidi Larrañaga Erdozia,** urriaren 30ean Bakaikun

EZKONTZAK

- **Urko Rekalde Maiza eta Irati Berastegi Lizarraga,** azaroaren 6an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Dionisio Oraa Gastaminza,** urriaren 31n Olaztin
- **Silverio Beraza Arrizurieta,** azaroaren 2an Altsasun
- **Apolonia Zunzarren Arratibel,** azaroaren 7an Bakaikun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 10




Iparraldeko haizeak euri zaparrada ugariak ekarriko dizkigu, baina temperatura maximoen gorakada txiki bat nabaritu dugu.

Larunbata, 11




Eguneko lehen orduetako tenperaturak epelxeagoak izango dira hodeien ondorioz. Zaparradekin jarraitu du egunak.

Igandea, 12



Hotzagoa esnatuko da eguna, baina antzerantzean jarraituko du, euria ugari eta hotz ikutuarekin. Haizea pixkat zakartuko da.

Astelehena, 13



Goizak euriarekin jarraituko du, baina egunak aurrera egin ahala, euria gutxitzen joango da, hotzari bide eginez.

URTEURRENA



Mikel Arregi Marin

XXXVIII urteurrena
Lakuntzan, 2017ko azaroaren 11n

Zure irrifarra, zure alaitasuna gure artean bizirik.

Zure familia

Aurtengo Behobian parte hartzeko asmoa duzu?

BAI, IZENA EMAN DUT	
6 %33.33	
EZ, EZ DUT EMAN IZENA	
12 %66.67	
IZEN EMAN DUT, BAINA EZINGO DUT PARTE HARTU	
0 %0	

40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Ardoi – Lagun Artea	1-3
Amigó – Etxarri Aranatz	1-0

SAILKAPENA	
1. Lagunak	19
11. Lagun Artea	8
16. Etxarri Aranatz	4

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
15:45 Etxarri Aranatz – Castillo de Tiebas	<i>Etxarri</i>

IGANDEAN	
15:45 Lagun Artea – Amigó Lakuntzan	

Ardoiren kontra jokaturako partida gogorrean 1 eta 3 irabazi zuen Lagun Artea eta 3 puntu oso baliotsu ekarri zituen. Ardoi izan zen aurreratu zena, baina lakuntzarrek partidari buelta ematea lortu zuten eta Nagorek, Goñik eta Beorlegik sartutako golei esker, 3 puntu ekarri zituzten etxera.

Etxarrik Amigó izan zuen aurkari, Iruñerrian. Bi taldeak saiatu ziren, baina baloiak ez zuen kontrako atean sartu nahi. Bigarren zatian Amigók dominatu zuen gehiago eta Etxarri kontraerasoekin mina egiten saiatu zen. Eta partida husnako berdinketarekin despidituko zela zirudienean, garaipenaren gola sartu zuen Amigók.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Pamplona B – Altsasu	4-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak B	19
2. Altsasu	13

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
15:30 Altsasu – Lekun Iruñan	

Lizasoainen, hasieran Altsasuk dominatu zuen, baina Pamplonak altsasuarren atea zulatzea lortu zuen eta hortik aurrera agintea hartu zuen. Loboren golak ez zuen porrota ekidin (4 eta 1).

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK	
IGANDEAN 3. JARDUNA LAKUNTZAN	
10:00 Kaixo – Tipi Tapa	
11:15 Urdiain – Etxarri Aranatz	
12:30 Sutegi – Lagun Artea	

Mank-ek Sakanako futbol taldeen laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol 8 Topaketen Kimuen mailako 3. jardunaldia jokatu da Lakuntzan. Benjaminek atseden hartuko dute.

Sakanako Futbol Topaketetan ez da lehiakortasuna sustatu nahi eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Osasuna	0-3

SAILKAPENA	
1. Berriozar	27
10. Altsasu	11

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
17:45 Universidad de Navarra – Altsasu	

Unzitiren kontrako partida atzo jokatzekoa zuen Zalduak, baina ez dugu emaitzaren berri. Asteburuan sailkapenean 11.a den Rocaren kontra ariko da Zaldua, Lekunberrin.

ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Zaldua – Roca	5-4

SAILKAPENA	
1. Bidezarra	16
5. Zaldua	10

PARTIDUAK	
DATARIK GABE	
Atzeratuta	Izalsa – Zaldua

Unzitiren kontra galdu, baina Rocaren kontra irabazi egin zuen Zalduak asteburuan. Sailkapenean bosgarrenak dira arakildarrak, eta Izalsaren kontra jokatzekoa zuten partida atzeratu dute.

30.192 korrikalari etzi Behobia-Donostian

ATLETISMOA Haiei irristalariak, gurpildun aulkikoak eta Behobia Txikian eta Behobia Gaztean arituko diren parte-hartzaileak gehitu behar zaizkie. Tartean korrikalari sakandar ugari izanen dira. Iaz 67k lortu zuten proba osatzea

Igandean jokatu da Behobia-Donostia lasterketa ezaguna. Guztira 34.000 partaide inguru izango ditu probak. Horietatik, 30.192 korrikalariak izango dira. Izena emandakoen %23,89 emakumeak dira –7.384 emakume–. Gora egin du emakumeen parte-hartzeak, korrikalarien ia laurdena dira.

Carles Castillejo eta Aroa Merino, aurreko urteko irabazleak Behobiako irteeran izanen dira. Haiekin batera, Jaume Leiva, Camilo Santiago, Dolores Marco eta puntako beste korrikalari batzuk izanen dira faboritoak.

Korrikalariei, gurpildun aulkian doazenak eta irristalariak gehitu behar zaizkie. Bestalde, Behobia Txikia larunbatean korrituko da eta Behobia Gaztea igandean.

Aurreko urtean 67 sakandar

2016an 67 sakandarrek lortu zuten Behobia eta Donostia batzea, 20 km gorabeheratsuak batu eta gero. Azkarrena Mikel



Korrikalarien festa da Behobia-Donostia.

Berdud altsasuarra izan zen, 355 postuan sartu eta gero (1:16:31). Emakumezkoetan lehen sakandarra Maria Goikoetxea etxarriarra izan zen (1:34:58, 5.929 postua). Etzi ere makina bat izango dira ariko direnak.

Iganderako hotza, euria eta haizea iragarri dute, baina korrikalariak ez dira kikilduko. Osasun langileendako hobe, bero-kolpeak ekidingo direlako. Korrikalariak artatzeko 8 gune izango dira eta lasterketa uzteko 23 gune.

Behobia, datutan

Larunbatean
15:00 Behobia Txikia (2.500 kide)

Igandean
9:45 Behobia Gaztea (302 partaide, 4,4 km)
9:45 Gurpil aulkikoak (75 partaide eta 18 gidari, 20 km)
9:50 Irriatalariak (223 irristalari, 20 km)
10:15 Korrikalarien irteera (30.192 korrikalari, 20 km)

Sakandarrak bikain Harresietan

Larunbat gauean Iruñeko Harresien Lasterketa jokatu zen. Arratsaldean 400 txikik hartu zuten parte "Pirata" lasterketan. Eta horiei proba nagusietan aritutako 4.644 korrikalari batu behar zaizkie. Hiru distantzietan jokatu zen lasterketa: Harresien Lasterketa (15 km), Gortorlekuko Lasterketa (10 km) eta Forteko Lasterketa (5 km).

Euria eta hotzari aurre eginez aritu ziren korrikalariak. Forteko Lasterketan (5 km) Pablo Lassa (15:48) eta Alicia Carrera (18:07) gailendu ziren. Ruben Mendieta sakandarra 11.a sailkatu zen (16:43). Gortorlekuko Lasterketan (10 km) Javier Nagore (33:39) eta Rocio Martin (41:04) izan ziren txapeldunak. Sergio Garcia



Larunbat gauean jokatu zen Harresien Lasterketa. KIROL BAT TRIATLOI TALDEA

de Eulate 6.a sartu zen (35:04) eta Alberto Martinez 8.a (35:32). Eta Harresien Lasterketan (15 km), azkenean Ibai Alba (50:23) eta Ana Llorens (59:02) korrikalariak irabazi zuten.

Sakandar ugari lehiatu ziren, baina antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriaren daturik eman eta ezinezkoa izan zaigu duinezko sailkapena egin ahal izatea.

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsalde zabalik

Hiru bixiguren zozketa!!!

Azaroan zehar

mariaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Garcia, Espainiako Kopako txapelduna

TRIATLOIA Espainiako Distantzia Erdiko Kopako 35 eta 39 urte arteko adin tartean gailendu da Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate triatleta altsasuarra, Orihuelan, Iruñean, Valentzian eta Guadalajararen egindako lanari esker

Urriaren 22an Ibiza Half Triathlon proba jokatu zen, Espainiako Distantzia Erdi eta Luzeko Koparako baliagarria zen azken proba. Espainiako Distantzia Erdiko Koparako 7 probek puntuatzen zuten eta denboraldian barna horietako lauretan aritu da Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate triatleta altsasuarra.

Zehazki, Orihuelako Triatloian, Iruñeko Half Triatloian, Valentziako Triatloian eta Guadalajarako Half Triatloian lehiatu da Garcia de Eulate. Azken proban, Ibizan, ezin izan zen aritu, baina aurretik aritutako probatako hiru denbora onenak hartu ditu aintzat antolakuntzak. Horrela, egindako lan bikainari esker, Espainiako Distantzia Erdiko Kopako proba absolutuan 16.a sailkatu da Garcia de Eulate -A.D. Tri-Penta Terras de Lugo taldeko Gustavo Rodriguez izan da txapelduna- eta bere adin tartean, 35-39 urte artean, txapelduna izan da.

Lau probak

Apirilaren 22an, Orihuelan (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrika), 35 eta 39 urte arteko kategorian hirugarrena sailkatu zen altsasuarra (4:35:00); maiatzaren 13an jokatutako Pam-



Sergio Garcia de Eulate, Guadalajarako proban. UTZITAKOIA

plona-Iruñea Half Triathlon erronkan (1,9 km igerian, 85 km bizikletan eta 21 km korrika), Garcia de Eulate 92.a sailkatu zen eta 35-39 urte arteko multzoan 19.a (4:28:24). Ondoren, ekainaren 10ean, Half Valencian (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21,1 km korrika) elite mailan 41.a sailkatu zen eta 35-39 urteko adinkako sailkapenean

8.a (4:19:17). Eta uztailean, Guadalajararen (1,9 km igerian, 92 km bizikletan eta 21 km korrika), proba absolutuan 36.a sailkatu zen eta bere adin tartean bosgarrena (4:51:58).

Esandakoa, Espainiako Triatloi Kopako 35-39 adin tarteko txapelduna dugu Sergio Garcia de Eulate, egindako lanaren aitortza bikaina.

Osasuna Magnak Barcelona izango du aurkari

ARETO FUTBOLA Azken bi jardunaldiak galdu eta gero Bartzelonan jokatuko dute gaur berdeek

Ostiralean Palma Futsal hartu zuen Osasuna Magnak etxean, 2.600 zaleen babesa zuela. Lehen zatian ongi ibili ziren nafarrak eta Dani Saldise irurtzundarrak bi gol sartu zituen. Baina atsedena dirira iristear, 19. minutuan,

gola sartu zuen Palma Futsalek. Atsedena dirira iristean, 22. minutuan, berdeen akats bat aprobetxatuz bina berdindu zuen Palmak, eta minutu bat beranduago, eta nafarren beste akats bat probestuz, hirugarrena sar-

tu zuen Palmak. Ikusgarria; lau minututan partidari buelta eman eta hankaz gora jarri zuten Osasuna Futsal. Imanol Arregirenak modu guztietara saiatu ziren, baina baloiak ez zuen sartu nahi izan eta 2 eta 3 galdu zuten.

Sailkapenean Movistar Inter da liderra (25 puntu) eta Barcelona bigarrena (4 puntu). Hain zuzen ere Barcelonaren kontra ariko da Osasuna Magna gaur, 21:15ean, Palau Blaugranan (Eurosport2). Ea berdeek egoerari buelta ematen dioten.



Arrieta argibideak ematen eta Erbiti eskuinean, adi-adi. MARCA

Arrieta eta Erbiti, 2018ko denboraldia prestatzera

TXIRRINDULARITZA Arrieta zuzendari uhartearren aginduetara, Erbitik bere 13. denboraldiari ekingo dio

Movistar Team taldea Gorraizen egon da kontzentratuta, 2018ko denboraldia prestatzen. Aurten Mikel Landaren fitxaketa da albiste nagusia. Nairo Quintana, Alejandro Valverde eta Mikel Landa izango dira taldeko liderrak. Askok oilar gehiegi ikusten dituzte oilategian, baina Movistar Team taldeko entrenatzaile Jose Luis Arrietak ez du arazorik ikusten. "Liderrak batera daudenean, taldearen indarra biderkatuko da" adierazi zuen Arrietak Diario de Noticias egunkarian.

Arrieta, zazpigarren urtez zuzendari

2017an Sky taldea izan zen talderik onena, eta aurreko hiru urteetan, aldiz, Movistar Team. Galdutako leku hori lortu nahi du 2018an talde nafarrak. "Frantziako Tourra da gure helburu nagusia eta hiru liderrek helburu hori lortzeko aukera gehiago ematen digute. Eusebio Unzueta eta errepideak erabakiko dute nor ariko den non. Bestalde, elkarbizitzak erakutsiko du liderren arteko arazoak egongo ote diren, baina orain arte ez dugu arazorik izan eta ez dut uste aurten izango dugunik. Elkarrekin batera, taldearen indarra biderkatuko da" nabarmendu du Uharte Arakilgo txirrindulari ohiak eta 2011tik Movistar Team taldeko zuzendaria denak.

Izagirre Bahrainera

Aurreko urtean Movistar Team taldean zebilen Gorka Izagirre Ziordiko bizilagunak taldea utzi du eta Bahrain taldean ariko da 2018 denboraldian, bere anaia Ionekin.

Urrezko ezkutaria

Movistar Team taldean jarraituko duena Hiriberriko Imanol Erbiti (1983) izango da. 2018an profesional mailako bere 13. denboraldiari ekingo dio Erbitik, guztiak talde berean. Tropelean eta bereziki bere taldean izugarri estimatzen dute Erbiti, gregario edo laguntzaile bikaina da, liderren ezkutari fidel eta nekaezina. Frantziako 8 Tourretan hartu du parte, Espainiako 10 Itzulitan, Italiako Giro batean eta Mundialetan 6 aldiz aritu da ibilbideko proban eta behin erlojupekoan. Bestalde, Rioko Olinpiadetan hartu zuen parte. Aurten, atzera ere, liderren laguntzaile fidelenetakoa izango da. Adierazi duenez, bere taldeari Frantziako Tourra irabazten laguntzeak izugarri motibatuko luke. "Gregario batendako, hori ia bere izateko arrazoietako bat da".

2018an 25 txirrindulari izanen ditu Movistar Team taldeak. Mugimendu asko egon da taldean eta txirrindulari laguntzaile berri asko izango dira. Erbiti beteteranoa izango dute erreferente guztiek.



Aralar Txirrindularitza Klubeko 2017 denboraldiko aurkezpena Etxarri Aranatzan egin zuten aurten. GUAIXE

Aralar, oso pozik lortutakoarekin

TXIRRINDULARITZA 2017 denboraldiko balorazio “bikaina” egin du Lakuntzako Aralar Txirrindulari Klubak-Intersport Irabia Taldeak. Emaitzak ikusgarriak izan dira, baina batez ere “gure neska-mutikoak gustura dabiltzalako” daude kontentu Aralarren

“Sakanan pribilegiatuak gara. Estatu osoan ez da egongo horren eremu txikian horrenbeste txirrindulari. Aurten maila bikaina eman dugu Burundak eta guk; goian egon gara. Oso pozik gaude lortutako emaitzekin, baina, bereziki, gure neska-mutikoak gustura dabiltzalako eta eskola sustatzeko lana ongi doalako gaude kontentu” aipatu digu Aralar klubeko presidente Alfonso Tadeok, 2017ko balorazioa egiterakoan.

Txirrindularitza eskola sustatzeko lanak fruitua ematen ari dela nabarmendu du presidentek. “Urte batzutan kopuru baxuetan egon ginen. Baina egindako lanaren emaitza bertan dugu: kadeteen eta jubenilen taldeak baditugu, eta atzetik datozenekin urte batzuetarako harrobia badago. Txirrindularitzak aurrera egiteko, egitura

on bat egon behar da lehenik. Gurasoak inplikatu behar dira taldean, jende berria sartu. Gaztetxoendako erakargarria izango da taldean sartzea. Denak egiten du” azpimarratu du.

Tadeok Sakanako administrazioen inplikazioa eskertu nahi du bereziki. “Eskerrak eman nahi dizkiogu Sakanako Mankomunitateari eta Lakuntzako eta Etxarri Aranazko Udalei, klubarekiko duten interesagatik eta jasotako laguntzagatik. Koordinazioan irabazi dugu eta euren babesa sentitzen dugu. Eta baita ere herritarrei, zerbait anto-

EMAKUMEEN TXIRRINDULARITZA SUSTATZEA DA KLUBAREN HELBURUETAKO BAT

latu behar denean hor daudela” aitortu du. Klubaren osasuna ona dela dio. “Larunbatean 90 pertsona bildu ginen Lakuntzako Pertzera elkartearen bazkaltzera, primerako giroan. Orain, 2018ko denboraldia prestatzen gaude. Izena eman nahi duenak, gugana edo aralarrrt@gmail.com epostara jo dezala” aipatu du.

Eskolak

36 txirrindulari trebatu dira eskoletan. “Oso ongi ibili dira. Nafarroako Txirrindularitza Federazioak antolatutako 32 lasterketetatik 25etan aritu gara eta ginkanan 37 lehen postu egin ditugu eta lasterketetan 17 lehen postu. Baina berriro diot, hori ez da garrantzitsuena. Gure txirrindulariak pozik ikusten ditugu, beste klubetako txirrindulariekin ere erlaxionatzen dira eta lagun berriak egiten

dituzte. Txirrindularitza kirol gogor eta sakrifkatua da, eta bizitzarako horren inportanteak diren baloreak –sakrifizioa, diziplina, lagunari laguntzea, taldea egitea...– ikasten eta barneratzen ari dira. Txirrindularitzarekin disfrutatu dezatela, hori da guretzat inportanteena” azpimarratu du Tadeok. Kategoria honetan, haurren mailako Martzel Etxeberria Espainiako Txapelketetan aritu zen.

Kadeteak, garaipena garaipenaren atzetik

Kadeteetan Aralarako Intersport Irabia taldea puntan egon da. Igor Arrietak 9 garaipenetik gora lortu ditu, Aitor Alberdik bi eta Urko Gorritik eta Inhar Astitzek garaipen bana. Horretaz gain, Igor Arrieta Euskadiko txapelduna izan da eta Nafar Kirol Jolasetako txapelduna. Eta denboraldian taldekako 16 garaipen lortu dituzte. Intersport Irabia Nafar Kirol Jolasen taldekako txapelduna izan da eta Tafallako taldekako erlojupekoan lehena. Aipatzekoa da ere Igor Arrieta eta Aitor Alberdi Nafarroako selekzioarekin aritu zirela Espainiako Lasterketetan. “Aralar eta Burunda egon dira goian. Aralarako ia txirrindulari guztiek izan dute garaipenen bat ospatzeko aukera, eta haiek kontentu ikusita, gu gehiago” nabarmendu du Tadeok.

Jubenilak: Etxeberriaren urtea

Intersport Irabia jubenilen taldean Josu Etxeberriak izen propioa dauka. Nafarroako erlojupeko txapelduna da, Espainiako Txapelketan bosgarrena sailkatu zen linean. Lizarran, Obanosen, Txoribar Lasterketan... garaipen potoloak lortu ditu. Horretaz gain, Espainiako Pistako Txapeldunordea izan da. “Jubenilek talde polita osatzen dute eta gustura ibili dira” azaldu du Tadeok.

Emakumeen lasterketarekin aurrera

Ohiko lasterketaz gain, aurten Lakuntzak emakumezkoen kadete, junior eta elite mailako

EMAITZAK ONAK LORTU DITUZTE, BAINA TXIRRINDULARIEK DISFRUTATZEA DA TALDEAK NAHI DUENA

Aralar Txirrindularitza Kluba 2017

Eskolak (36)

• **Promesak:** Adur Lizarraga, Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Urko Oiarbide, Julen Ruiz de Erentxun, Garbiñe Arregi eta Hodei Lizarraga. Entrenatzaileak: Txomin Huarte eta Joseba Lizarraga.

• **Hasiberriak:** Ibai Arana, Oier Irujo, Janitz Zufiaurre, Joseba Perez, Manex Huarte, Luca Martinez, Aimar Azanza, Ekai Navarro, Laida Garziandia eta Aratz Lizarraga. Entrenatzaileak: Jon Arregi eta J.B. Urtaşun.

• **Kimuak:** Manex Zufiaurre, Naia Perez, Achraf Sbai, Aritz Oiarbide, Xabier Ilegi, Ioritz Arratibel, Bakarne Arregi, Alain Rosado, Eñaut Oiarbide, Aritz Sao, Anartz Garcia de Albeniz eta Leire Urtaşun. Entrenatzaileak: Mikel Oiarbide eta Alfonso Tadeo.

• **Haurrak:** Jon Erdozia, Ion Cerviño, Martzel Etxeberria, Mikel Ilegi, Alex Lopetegi, Aimar Tadeo eta Ander Albarrazin. Entrenatzaileak: Alberto Martinez eta Juanjo Erdozia.

• **Kadeteak (5):** Urko Gorriti, Inhar Astiz, Aitor Alberdi, Asier Irujo eta Igor Arrieta. Entrenatzaileak: Javier Etxarri eta Edy Cerviño.

• **Juniorrak (7):** Beñat Etxezarreta, Imanol Galarza, Xabier Mauleon, Unai Lizarraga, Josu Etxeberria, Iker Cerviño eta Javier Mitxau. Entrenatzaileak: Edy Cerviño eta Migel del Rio.

lasterketa hartu zuen lehenengoz, ekainean. Tropeleko txirrindulari onenak ikusi genituen lanean. “Sekulako lana eman zigun proba hau antolatzeak, kataluniarrak, murtziarrak, portugaldarrak... esfortzu handia izan zen baina emakumezkoen txirrindularitza sustatu nahi dugu, eta 2018an ere antolatzea aurreikusten dugu” azaldu du Edurne Arkauz diruzainak.

Emakumezkoen lana agerian jartzeko, aurten emakumezkoak eta gizonezkoak berezita aritu dira lasterketetan.

Iñigo Aritza Pilota Txapelketa aurrera

PILOTA Igandean, 16:30ean, 4. jardunaldia jokatu da ikastolan

Ikastolako LH3 eta DBH3 maila bitarteko gaztetxoek 4. jardunaldiari eginen diote aurre etzi.

Ikastolako igandeko partidak

LH3:
Kimetz – Urko
Harri – Aratz

LH4:
Beñat – Eñaut
Aser – Eneko
Inhar – Alejandro

LH6:
Patxi – Asier

DBH1:
Iker – Arkaitz
Harri – Hegoi

DBH2:
Aimar – Araitx

DBH3:
Ekhi – Inar
Oier – Juanes



Nafarroako Sokatira Txapelketa urriaren 29an hasi zen, Arbizun. UTZITAKOIA

Nafarroako Sokatira Txapelketa Lakuntzan

SOKATIRA Bihar, larunbatean, 12:00etan, Nafarroako Sokatira Txapelketako gizonezkoen 600 kiloko lehen jardunaldia eta talde mistoen 550 kiloko lehen jardunaldia hartuko ditu Behar-Zana frontoiak

Urriaren 29an hasi zen Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Nafarroako 2017ko Sokatira Txapelketa, Arbizun. Aurreko asteburuan bigarren jardunaldia jokatu zen, Berriozarren, eta bihar, larunbatean, Lakuntzara iritsiko da. Izan ere, Lakuntzako Pertza Elkartek Bazkide Eguna ospatuko du bihar eta, tartean, Nafarroako Soka-

tira Txapelketa ekartzea erabaki dute. 12:00etan hasiko da, Behar-Zana pilotalekuan.

Guztira 4 txapelketa izango dira Nafarroako Sokatira Txapelketaren barruan jokatu direnak. Dagoeneko bi erabaki dira. Batetik, gizonezkoen 640 kiloko Nafarroako Sokatira Txapelketa urriaren 29an Arbizun eta azaroaren 4an Berriozarren

jokatutako saioetan egindako lana batu eta gero erabaki zen. Lesakako Beti-Gazte izan zen txapelduna (6 puntu), Berriozar (4 puntu) eta Antsoain (2 puntu) taldeen aurretik. Eta bestetik, emakumezkoen 375 kiloko Nafarroako Txapelketa ere bi jardunaldi horiek kontuan hartuta erabaki zen eta Txantrea (8 puntu) gailendu zitzaien Berriozar

(5,5 puntu) eta Beti-Gazte (4,5 puntu) taldeei.

Gizonezkoen txapelketa eta talde mistoena

Bihar Nafarroako Sokatira Txapelketako gizonezkoen 600 kiloko eta talde mistoen 550 kiloko txapelketetako lehen jardunaldia jokatu da Lakuntzan. Aipatu txapelketa bi jardunalditan erabiliko da, bihar eguerdian Lakuntzan jokatu denean eta azaroaren 18an Lesakan jokatu denean. Gizonezkoen 600 kiloko txapelketan lau talde lehiatuko dira: Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea eta Antsoain. Talde bakoitzak 8 tiratzaile izango ditu. Bestalde, emakumez eta gizonez osatutako talde mistoen txapelketari ere hasiera emango zaio bihar Lakuntzan. Bost talde lehiatuko dira: Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea eta Antsoain. 8 tiratzailez osatutako taldeak dira, 4 tiratzaile gizonezko eta beste horrenbeste emakumezko.

Hortaz, puntako sokatiraz gozatzeko aukera eskainiko du bihar Lakuntzak. Tamalez, ez dago talde sakandarririk, baina ariko diren talderen batean sakandarren bat lehiatuko da.

Aizkolariak

Sokatirarekin batera, aizkolari sakandarren erakustaldia hartuko du bihar Lakuntzako frontoiak, elkartearen bazkide egunaren barruan antolatuta.



UTZITAKOIA

Ansa txapelduna

PILOTA Larunbatean 33. Gartzarongo Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren, 5 final guztira. Tartean, helduen mailan Oberena klubeko Ansa altsasuarrak eta Iruritak beraien taldekide Gartzia eta Cordon I izan zituzten aurkari. Ansak eta Iruritak, ikusgarri, 6 tantotan utzi zituzten bere taldekideak (22 eta 6). Hortaz, txapela Altsasura ekarri zuen Ansak.



UTZITAKOIA

Resanok txapela jokoan

AIZKORA Euskal Herriko III. Mailako Txapelketako finala igandean jokatu da, 13:00etan, Aldazen. Jon Tellexea (Beintza Labaien), Iban Resano (Dorrao), Jokin Alkizaletxe (Asteasu), Asier Pellejero (Areso), Luis Mari Txapartegi eta Eloy Corchero (Araia) ariko dira, hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako erdibitzeko lanetan. Lehen laurak II. mailara igoko dira.

MENDIA Sakanako Mendizaleak taldeak hurrengoa prest

Sakanako Mendizaleak taldeak hilean behin mendi irteera bat prestatzen du, autobusez. Hilabete honetako irteera azaroaren 19an izanen da, baina autobusa antolatu ahal izateko izena ematea aurretik egin beharra dago eta dagoeneko zabalik dago, azaroaren 16ra arte.

Errioxa aldera joko dute gure mendizaleek. Zaldiernatik aterata, Valgañon izango dute helburu. Autobusa azaroaren 19an goizeko 6:00etan abiatuko da Irurtzundik, eta Sakanako herrietan geldialdiak eginen ditu, izena eman duten mendizaleak jasotzeko. Ohiko tokitan eman behar da izena. Bestela, 639 117 631 telefonora hots egin daiteke.

Hamar urte antzokien tarima beltzaren gainean

Altsasuko amateur antzerki taldeak hamarkada bete du. Antzerki muntaia berri bat prestatzen hastekoak dira, komedia bat, udaberrirako nahi dutena. Bitartean, trukaketen bidez amateur antzerkia zabaltzen segitzen dute

ALTSASU

Altsasuko Antzerki Tailerretik sortu zen Tarima Beltza 2008an. Orduz geroztik, hiru antzezlan landu dituzte Jon Barbarin ihabartarraren zuzendaritzapean hamar urtetan sei antzezlan taularatu dituzte: *La familia Malumbres y sus farsas* (2007), *No hay ladrón que por bien no venga* (2008), *¿Habrá o no habrá función?* (2009), *Bienvenido a Girasol* (2012), *Nunca fuimos heroes* (2014) eta *Falstaff no cree en la otra* (2016). Dozena bat aktore izan dira antzezlan horietako pertsonaiak jokatu dituztenak: Maru García, Jose Luis Liberal, Merche Herrera, Muan Manuel Herrero, Amaia Mintegi, Pili Maldonado, Maru García, Marta Diego, Natalia Martin, Eider Leoz, Nahikari Gonzalez eta Olibi Galparsoro.

Baina antzezlanak sortzeaz aparte programatzeaz ere arduratu da Tarima Beltza taldea. Beti ere, amateur antzerki taldeak ekarri dituzte Iortia kultur gunera. 2011n ekin zioten *Te@treves* antzerki zikloa antolatzeari eta urtero hiru emanaldi eskaini izan dituzte. Data arazoengatik aurten salbuespena izan da zikloan eta urtean barna programatu dituzte emanaldiak. Heldu den urtean zikloa berreskuratzeko lanean ari dira taldeko kideak.

Muntaia berria

Herrerok aurreratu duenez, Falfaffen emanaldiak aurten despedituko dituzte eta berehala obra berria prestatzeari ekinen diote. "Komedia hutsa izanen da denok, ikusleak eta guk, barre egiteko". Hala, azken antzezlanetako drama eta tragikomediatik urrunduko dira. "Gozatu, ganberroarena egin" nahi dutela azaldu digu.

Abenduan utziko duten obran zazpi aktore aritu badira hurrengoan bost izanen direla au-

rerratu digu Herrerak. "Batzuk libre gaude, baina besteak lan egiten dute eta entseatzeko zaila izaten da. Eta lanean txandaka bazaude lehiaketa eta emaldietara joatea zaila da". Udaberrirako nahi lukete lan berria.

Trukeak

Nafarroako Antzerki Talde Amateurren Federazioko kide dira 2010etik. Horrek beste talde amateurrekin trukaketak egitea erraztu zuen. Baina Tarimakoak ez dira horretan gelditu eta beste erkidegoetako taldeekin trukaketak egiten hasi ziren duela bi urte. Hala, Castro Urdiales, Amurrio eta Abadiñoko taldeak izan dira Altsasun eta Tarimakoak han ere. Herrerak azaldu duenez, Nafarroako Gobernuak amateur antzerkiarendako diru-laguntza moztu du, "profesionalaren aldeko apustua egin du". Herrerok elkarteari begira ahots gora galdetu du Nafarroako amateur antzerkiaren erakustaldia ez ote zen gauza handiegia. Taldeek antolatzen zizuten erakustaldiek eusten diotela, baina udalek antolatutakoak ezetz jakinarazi digute. Eurek, orain arte bezala, sarre-rako diruaren truke beste antzerki taldeekin lanean segituko dutela jakinarazi dute.

Hamlet bisitan etorriko da

Valladolideko Teatro del Veneno taldearekin trukea egiten dute. Haiek William Shakespeareren Hamleten gaurkotutako moldaketa bat ekarriko dute Iortia kultur gunera hilaren 18an, larunbatean, 19:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude.



Aurreneko antzezlaneko Malumbrestarrak Etxarrin eta Altsasun izan dira berriki.



BAZTERRETIK

JOSE LUIS ASENSIO

Grebak Japonian

Japoniar erara egindako greba batean, langileek produkzioa handitzeko ahalegina egiten dute lan egiteari utzi gabe. Honela, enpresa barruan stock handia sortzen da eta ekonomiaren eskaintza eta eskaera legeen arabera diru galerak izango dira langileek soldata osoa kobratzen duten bitartean. Produkzioa eskaintza baino handiagoa bada, prezioa jaitsi behar omen da dena saltzeko eta horretan datza sinismena.

Greba egiteko modu hau, ordea, ez da benetan ematen Japonian. Kondairak 40 eta 50 urteetako hamarkadetan jasotako gertakizun bat du oinarri. Garai hartan, kotxeak egiteko prozesuak eraldatzen hasi zen Toyota, kalitatea jaitsi baina aldi berean prezioa jaitsi eta produkzioa handitzeko. Arrakasta izan zuen, baina kalkuluak ez zituzten ondo egin eta atzeraldi garai batean zeudela, saldu gabeko kotxe kopurua handituz joan zen diru arazoak sortu zirelarik. Diru galerak zirela eta, langileak kaleratzea pentsatu zuen Toyotak eta hauek greba luze bat hasi zuten beren eskubideen alde borrokatzeko. Greba ordea, arazoa sortu ondoren hasi zen eta ez alderantziz.

Japonian izaten diren benetako grebak normalean bi



motatakoak izaten dira. Gure gizartean izaten diren greben antzekoak dira batzuk, lana egiteari uztea alegia eta lana uzteagatik soldataren zati bat galtzea. Greba mota hau askotan enpresak negoziazio bat hasteko egin ohi da eta ez negoziazioa aurrera doanean presioa egiteko. Oso motzak izan ohi dira, eta langileak kartela eta pankartekin kanporatzen dute beraien ondoeza.

Bigarren greba mota, "arreta greba" deiturikoa dugu. Langilea lanera doa normaltasunez, baina bere enpresaren segurtasun eta higiene-arauak zorrotz betetzen ditu. Normalean kontutan izaten ez diren arau txikiak ere betetzen dira, denbora alferrik galduz. Pentsa jatetxe bateko zerbitzari batean. Bere araudian eskuak garbi izan behar dituela idatzirik badu, zorrotzki betetzeko, edozein gauza ukitu ondoren joan behar du eskuak garbitzera. Honek kexa ugari sortuko ditu ezin izango duelako arreta jarri bezeroetan, baina aldi berean langilea bere eginbarra

betetzen ari da legediak dioen moduan, sisteman dagoen arazo bat azpimarratuz. Soldata mantentzeaz gain, arazoa enpresan dagoela erakutsi nahi da, bai langile gutxi dituelako lanean edo egitera behartuta dauden lana gehiegizkoa delako.

Kuriositate bezala, jakin ezazue langile publikoek debekatuta dutela greba egitea, 40. hamarkadaz geroztik, Japonian. Eta ez dira soilik poliziak eta suhiltzaileen moduko langileak, administrazioko langileak eta beste funtzionario guztiek ere dute debekua indarrean bigarren munduko guda bukatu zenetik.

Gaur egun munduan hitzarmen kolektibok indarra galduz doaz eta enpresa eta langileen arteko harremana zuzena izan ohi da. Ondorioz, greben indarra gutxituz joan da eta gaur egun ia ez da grebarik egiten Japonian. 2010. urtean Japonia osoan 4 ordu baino luzeagoko grebak 38 izan ziren besterik ez, eta osotara 2.500 pertsonak hartu zuten parte.

Ferietako argazki rallyak irabazleak eta erakusketa ditu

lortia kultur gunean ikus daitezke 39 argazkilariek lehiaketara aurkeztutako irudi guztiak

ALTSASU

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak herriko ferietan antolatutako argazki rallyra aurkeztutako lanekin erakusketa prestatu du, larunbatean mustu zuena. Erakusketa mustu aurretik 39 parte-hartzaileek aurkeztutako argazki guztiak pantaila handian eman zituzten eta sari banaketa egin zen. Bost gai irudikatu behar izan zituzten ferietako goizean: Feria, kontrargia, tabernan, moda eta Altsasuko joan den urtean. Ondoren, bildutako argazkizale guztiendako auzatea izan zen.

Sariei dagokionez, helduen mailan bilduma onena Imanol Manterola Odirozola zumaiarrak aurkeztu zuen. Bigarrena Jose Luis Rodriguez Moran zallarria izan zen eta podiuma Asier Imaz legazpiarrak osatu zuen. Azken horrek, gainera, ferietako ar-



Sari banaketa ondorengo auzatea.

gazki onena atera zuen epaileen iritziz. Haurren mailari dagokionez, lehen saria Nagore Imaz Bravo legazpiarrarendako izan zen. Bigarrena Maddi Sanz legazpiarra izan zen eta hirugarrenarena Josune Imaz Aierdi olatzagutierra suertatu zen.

Arakilgo bertso musikatu saiorako txartelak salgai

Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak udazkeneko eskaintza aletzen doa. Azaroaren 18rako bertso saio musikatu antolatuta du. Oskar Estanga gaintzarra eta Oihana Iguaran amasarra bertsolariak izanen dira Ihabarren ariko direnak. 19:00etan bertso saioa eskainiko dute kontzeju-etxeke bajejan. Ondoren, toki berean, 22:00etan afaria

egonen da. Bertsoaren berora eginen den arafira joan nahi dutenek azaroaren 16ra arte, heldu den ostegunera arte, eros dezakete txartela Arakilgo udaltxelean. Arakil ibarrean errolatuta dauden pertsona helduek 12 euro ordaindu beharko dute afaltzeko, errolatuta ez daudenak, berriz, 15. Haurrak badira, Arakilen errolatutakoek 6 euro pagatu beharko dute eta hala ez daudenak, berriz, 8 euro pagatuta Ihabarren afaltzeko aukera izanen dute.

Poesia errezitaldia Uhartre Arakilen

Eguna eta ordua mustuko ditu urteroko olerki errezitaldiak: igandean izanen da, 18:00etan, Donibane jubilatuta elkartean. Dozena bat urte dira olerkiekin udazkenean hitzordua jarri zutena eta hutsik egiten ez dituen zaleak elkartzen dira

UHARTE ARAKIL

Hamabigarren aldia izanen da poesia Uhartre Arakilgo Donibane jubilatuta elkartea hartuko duena. Olerki errezitaldian lau poetek parte hartuko dute aurtentzen: Mercedes Viñuelak, Cristina Lisok, Inma Biurrun eta Blanca Arrizabalaga. Azken hori, uhartearra, da errezitaldiaren sustatzailea. *Un espejo de mis sentimientos* liburua argitaratua du (2003) eta etziko emanaldian hango olerkiak eta berriak tarrekatuko ditu; maitasuna, ama, erlijioa, krisia edota natura hizpide duten sorkuntzak dira.

Uharteko poesia hitzorduan aski ezaguna da Mercedes Viñuela, behin bakarrik huts egin duena. Iruindarrak *Versos de mi otoño* (Asociain EOS Barbarin, 2015) eta *Mi vida como un río* (Auto-ekoizpena, 2006) liburua argitaratu ditu. 15 poesia antologiatan parte hartu du. Bere lanak Nafarroan, Bartzelonan, Madrilan, Andaluzian, AEBn eta Argentinan sarituak izan dira. Hainbat aldizkarietan eta egunkaritan ere argitaratu du. Gurutze Gorriaren literatur solasaldien moderatzailea ere izan da. 2002 urtetik Nafarroako Ateneoko Angel Urrutia eta Lizarraldeko Poetak taldeetako kide da. Igandean maitasuna,



Joan den urtean olerkariak poesia zaleak erakarri zituzten. ARTXIBOA

bakardadea, itxaropena, denboraren pasa eta heriotza izanen ditu hizpide.

Joan den urteko estreinakoaren ondoren, Inma Biurrun bigarrenez ariko da Uhartre Arakilen. Iruindarra irakasle jubilatua da, Irurtzongo eskolan aritua, eta ikasleekin poesia lantzea eta hura maitaraztea garai hartako lorpen handitzat du. Angel Urrutia olerkari taldeko kidea da. Río Arga, Constantes Vitales edo Hela aldizkarietan argitaratu ditu bere poesia. Haikunversaciones taldeko bes-

te kide batzuekin batera *Vientos de haiku* liburuko egileetako bat izan zen. Gerora *Bambú 100 haikus* liburuan parte hartuko zuen. 2015ean eta 2016an antologia banatan argitaratu zen Biurrunen obra. *El jardín que sembraste* (2016, Vitruvio) liburua argitaratu zuen.

Cristina Liso Aldazek estreinako du Uhartren. Angel Urrutia poesia taldeko kidea da. Bai bera baita gainontzeko olerkariak Mikel Auzmendi gitarra-jole etxarriarraren laguntzaz erre-zitatuko dituzte euren poemak.

Autoen seguruak

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena PREZIO ONENEAN

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Kalitate handiko produktuekin gabonetako opariak, loteak edo saskiak egiten ditugu!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Heldu den flamenko berritzailearen lagina

La Choni konpainia flamenkoak dantza estilo horretako abangoardiako dantza ikuskizuna ekarriko du Altsasuko lortia kultur gunera, larunbatean, 19:30ean. Eskarmentu handiko dantzariak saritutako ikuskizuna eskainiko dute

ALTSASU

Asuncion Perez, Choni, buru duen La Choni konpainia flamenkoa bigarren bisitatuko du Altsasu. Oraingoan *Tejidos al tiempo* dantza ikuskizuna emanen dute, haien lehena. 2007ko abenduan mustutako obra flamenkoaren panoraman “erabateko sorpresa” izan zen, “eskaintzen ziren obrekiko inolako antzekotasunik ez zuelako. Flamenkoaren abangoardian” kokatu zuten Choni. Irudimena eta fantasia ugarirekin, dantza eta kontzepzio futurista bat egin zuten, ikuskizun “surrealista eta dalinianoa” sortzeko.

Tejidos al tiempo dantza ikuskizuna denborari, bizitzari eta heriotzari buruzko hausnarketa da. Heriotzari aurre egiteko borroka bizi berri bat garatuz lortu daitekeela azalduko du. Istoria flamenkoan sakon errotzen den hizkuntza bisuak berriekin kontatua dago. Horretarako, Chonik seguriya, fandango,



Abangoardiako flamenko dantza ikuskizuna izanen da Altsasun bihar.

soleá, soleá por bulería eta milonga dantzak baliatuko ditu. Hainbat sari jaso ditu dantza-ikuskizunak.

Koreografia Choninena da eta berak dantzatzen du, Manuel Cañas dantza garaikideko dan-

tzariarekin eta Victor Bravorekin batera. Eszenatokian lagun izanen dituzte Raul Cantizano (gitarra, eta zanfoña), Alicia Acuña eta Sebastian Cruz(kantuan) eta Antonio Montiel (perkusioa).

Musika estilo bilduma Larrazpiko jaialdian

San Martin festak direla eta kontzertuak izanen dira Irurtzongo gazte elkartearen larunbatean, 21:30ean

IRURTZUN

Irurtzongo festa txikiak direla eta Larrazpi gazte elkarteak jaialdia antolatu du. Eszena-tokia txandakatzen lau talde ariko dira. Damned Ritual laukoteak death metal doinuak lantzen ditu eta *Roots of evil* diskoa aurkeztuko du. Migel Angel Siciliak (bateria) eta David Ramirezek (gitarra) abiarazi zuten taldea. Aurretik elkarrekin beste talde pare batean arituak ziren. Joan den urtean Javier Martikorena (ahotsa) eta Alvaro Solano (gitarra) elkartu zitzaizkien. Aur-

ten sartu ziren estudioan eta irailaren 30ean argitaratu zuten euren estreinako lana.

Zakil taldea hirukote baztandar batek osatzen du. Sortu berriak punk-noise doinuak dira haienak. Zizurko eta Garesko boskote batek osatzen du Ezurte taldea. Hardcore doinuak lantzen dituzte Mariok (bateria), Txabok (bajo), Murtzek (gitarra), Unai (gitarra) eta Alfeke (ahotsa). *Erantzunaren bide luzean* diskoa kaleratu dute aurten. Azkenik, Txartoak taldeak punk berbena eskainiko du.

Sorkun abeslariaren azkena akustikoan eta zuzenean

Sorkunek abeslariak, Mikel Romero gitarra-jolea lagun duela, *Ziklomorphosia* diskoa aurkeztuko du, akustikoan gaur, 23:00etan, Olatzagutiko Barandi tabernan. Sorkunde Rubiok ibilbide luzea egin du musikagintzan. 90eko hamarkadan Kashbad taldeko abeslari izateagatik ezagun bihurtu zen. Gerora Negu Gorriak, Joxe Ripiau eta Flitter taldeekin aritu zen, baita Fermin Muguruzarekin ere. 2002an ekin zion bakarkako ibilbideari eta, harrezkero, lau disko argitaratu ditu: *Onna* (Metak, 2002), *Duna* (Kontrakalea-Metak, 2005), *Sorkun & Vicepresidentes* (PIAS 2008) eta *Ziklomorphosia* (Srgntx Koop 2015).



Jakin-mina sortu zuen Arrano beltza partituraren originalak.

Gonzalez Aziluren Arrano beltza bigarren Altsasun

Iruñeko Ganbera Abesbatzak abestu zuen eta, akaberan, publikoak partitura ikusteko aukera izan zuen

ALTSASU

Fernando Sayasi esker jakin zuten altsasuar askok, baita Iruñeko Ganbera Abesbatzak berak, Gonzalez Aziluren *Arrano beltza* obra haren sorterrian kantatzen zen bigarren aldia zela. Aurrenekoa Bengoetxea zineman izan zen, 1977ko irailaren 11n, 12:00etan eta sarrerak orduko ehun pezeta balio izan zituen. Sayasek orduko sarrera eta esku programekin kartela egin eta ezkaratzean, txarteldegi ondoan jarri zuen.

Bigarrena

Ostiralean Javier Galvez Pintado zuzendariak emanaldiaren aurretik obraren inguruko azalpenak eman zituen. “Joan den mendeko 70eko hamarkadako musika abangoardiako obra garrrantzitsua da. Mustu zela 40 urte bete direnean obra berreskuratzea eta errepertorioan txertatzea erabaki dugu. Ezinbesteko obra dela uste dugulako”. Gonzalez obra egiteko Joxean Artzeren olerkian oinarritu zen eta Galvezek esan zuenez, “poema politikoa, gogorra, erasokorra. Garai asaldatu batean idatzia. Gauza askotaz hitz egiten du, batez ere, identitateaz. Irakurketa asko dituen eta galdera asko sortzen dituen poema da”.

Zuzendariak esan zuenez, “testu eder horri Gonzalezek gehitu egin zion. Berak dio obrarekin ez duela ezer bilatzen, soilik euskararen fonetikaren bidez soinuaren bilaketa”. Galvezendako altsasuarrak testuei “adie-

razkortasun handiagoa” eman zien. “Artzeren mezu politikoak musikak anplifikatu zuen”.

Galvezek obra ez dela “armonia eta melodia ederreko ohiko obra polita” argitu zuen hasieratik. “Entzunen duzuen esperimentzia bat da. 60-70eko estetikaren barruan kokatzen da, arteak, berez ez zuen zergatik ederra izan behar. Artea zakarra izan zitekeen”.

Zuzendariak azaldu zuenez, obra ez da musika altueran oinarritzen, baizik eta giza-soinu guztiaren altueran, hau da, zurrumurrutik hizketara, kantura eta oihura, guztien graduazioa eginez”. Hala, obrak batzuetan soinu handia du, besteetan delikatua. Abesbatza eta lau bakarlariendako obra da altsasuarrarena, azken horiek “esahiekin jolasten ari dira”.

Galvezek jakinarazi zuenez, Gonzalezek idatzitako partituras erronka handiak dakartza. “Ez da musika grafia. Berak asmatutakoa da. Ingeniari edo arkitekto tekniko baten marrazkitik gertuago dago musikari batetik baino. Gutxitan dago musika pentagrama. Aurreneko erronka Gonzalez Aziluk egindakoa deskodetzea da. Hasieran instrukzio guztiak jarri ditu. Beste zeinu batzuk ez dute azalpenik. Deskodetze lan izugarria eskatzen du”.

Gonzalezek Galvezi esan zion “musika egitura zurrunik ez egin, araurik ez du, ideial bat da. Beraz, guri irakurketa asko sortzen dizkigun obra bat da. Guretako ez da sekula berdina”.

"Txikitako ametsa betetzen ari naiz"

NAIARA IJURKO PIANO-JOLEA

Uhartarra Haize Berriak bandarekin bakarlari gisa aritu zen larunbatean. Goizeko entseguaren aurretik tarte bat hartu zuen Guaixerekin bere ibilbidea errepasatzeko

Eñaut Agirrebengoa ALTSASU

Sei urte eskasekin murgildu zen musikaren munduan Naiara Ijurko. Pianoa jotzeari ekin zion Etxarriko musika eskolan, eta esperientzia hori bere zaletasunaren ernamuina izan zen. Denboraren poderioz, geroz eta garbiago ikusi zuen piano-jole profesionala izatea zela bere ametsa. Bada, urteetako ahaleginari esker, pianoa bizibide izatea erdietsi du. Egun interprete lanetan dihardu, ganbera musikan gehienbat, eta, horretaz aparte, irakaslea da Bartzelonako Liceu kontserbatorioan.

Nondik pianoarekiko zaletasuna?

Ahizpak pianoa jotzen zuen, eta hark egiten zuen guztia kopia nahi izaten nuen nik. Sei urterekin hasi nintzen, Etxarriko musika eskolan. Asko gustatu zitzaidan, eta jarraitu egin nuen. Dena den, hasieran ez nuen garbi piano-jolea izan nahi ote nuen. Asko ikasi beharra dago, eta zaila da. Zalantzazko uneak izan nituen. Baina gustua hartu nion azkenean. Hamabi urterekin, zalantza gutxi nituen jada.

Iruñeko kontserbatorioan gauzak serio jarri zirela esan daiteke, ezta?

Hala da. Hamabi urterekin hasi nintzen bertan. Hor erabat garbi neukan musikarekin eta pianoarekin jarraitu nahi nuela,



Naiara Ijurko lortiko pianoan eserita. EÑAUT AGIRREBENGÓA APAOLAZA

ahal zen guztia ikasiz. Piano-jole profesionala izatea zen nire ametsa. Eta txikitatik egin nuen ahalegina lan hori lortzeko. Behin Iruñeko Kontserbatoriotik aterata, goi mailako ikasketak Musikenen burutu nituen. Lau urtez izan nintzen han.

Zer ikasi zenuen Musikenen?

Oso kontserbatorio ona da. Maila handiko piano irakasle bat neukan. Kalitate handiko formazioa jaso nuen. Gainera, musika garaikidean espezializatu nintzen. Horretaz aparte, hainbat ikasgai zeuden: ganbera

musika, orkestra... Denetarik. Baina ni, gehienbat, pianoko interpretazioan eta musika garaikidean zentratu nintzen.

Ordutik han eta hemen izan zara. Adibidez, Balear Uharteetako musika garaikideko ensembleko kide bezala, kontzertuak eskaini dituzu Espainiako Estatuko hainbat auditorium garrantzitsutan.

Hori esperientzia oso polita izan zen. Musikeneko azken urtean, Mallorcako ensemble horretan hasi nintzen. Horrek musika garaikidea lantzen zuen, eta ederra izan zen. Garrantzi han-

diko leku askotan jotzeko aukera izan nuen; adibidez, Madrillgo Auditorio Nazionaleko ganbera gelan. Mugarri garrantzitsua izan zen nire ibilbidean.

Donostiako kontserbatorioko orkestrarekin ere izan duzu aukerarik emanaldiak eskaintzeko.

Pianoaz aparte, klabezina ere jotzen dut. Horri heldu nion aipatu orkestran. Egia esan, ezin naiteke kexatu, aukera eta esperientzia asko izan baitituzte urte hauetan zehar. Piano-jole bezala garatzen lagundu dit.

2011n beka eman zizun Nafarroako Gobernuak. Herbehereetara joan zinen, ezagutza zabaltzera. Nolako esperientzia izan zen?

Aparta. Zazpi urtez izan naiz han. Printzipioz hiru urterako joan nintzen, baina luzatu egin zen gauza. Beste bi karrera eta master bat egin nituen. Groningenen klabezineko goi-maila egin nuen, pianokoa ere bai, eta gero Maastrichtera joan nintzen piano akonpainamenduko masterra egitera.

Zer proiektu duzu eskuartean?

Orain Bartzelonan bizi naiz. Bertan irakasle nabil Liceu Kontserbatorioan. Horretaz aparte, piano interpretatzaile izaten jarraitzen dut. Kontzertuak han-hemen bilatzen aritzen naiz. Ganbera musika gustatzen zait gehien. Asko jotzen dut Eduardo Cantorekin batera. Nahasketa polita osatzen dute pianoak eta biolinak. Hor gabiltza. Zenbat eta gehiago jo, hobe.

Normalean beste norbaitekin jotzen duzu, edo bakarlari aritzen zara?

Gehienbat musika garaikidea eta klasikoa egiten dut, eta jende gehiagorekin jo ohi dut. Gehiago gustatzen zait hori, bakarlari moduan aritzea baino. Atseginagoa zait beste norbaitekin aritzea. Orkestra batean, ensem-

blean... Orain horretan nago zentratutik. Hori bai, bakarka ere izan dut esperientziarik.

Zein da zure erreferentea?

Martha Argerich da nire piano-jolerik gustukoena.

Eta baduzu pieza kuttunik?

Hori zailagoa da. Musikariak esan ditzaket, baina piezak... Agian, Frederic Chopinen Lehengo balada... Txikitatik asko gustatu izan zait. Ez dut sekula jo, baina oso pieza garrantzitsua izan da niretako. Agian ez gustukoena, baina bai, bederen, esangura handikoa.

Orain arteko ibilbidean, ba al dago bereziki oroitzen duzun unerik?

Musikeneko kontserbatorioan sekulako irakasle bat izan nuen. Oso garrantzitsua izan zen niretako. Hark etxe handi bat zeukan Frantzian, eta kontzentrazioak eta kontzertuak egiten zituen bertan. Han bizitako momentuak oso lagungarriak izan zaizkit. Irakaslea niretako inspirazio iturri handia izan da.

Posible al da pianotik bizitzea?

Kontzertuekin bakarrik, nekez. Jarduera osagarriren bat izan behar duzu. Ni, adibidez, irakaslea naiz interpretatzailea izateaz aparte. Gero, laguntzaile ere izan zaitezke kontserbatorioetan edota orkestretan. Oso zaila da soilik kontzertuen kontura bizitzea. Nahitaez alternatibak bilatu behar dituzu.

Interpretatzaile bezala, irakasle fazetak aberasten zaitu?

Bai. Ganbera musika irakasten dut. Oso garrantzitsua da niretako orain arte ikasi dudana guztia plazaratzea, eta lekukoa beste norbaiti pasatzea. Asko ikasten duzu irakasle izanik. Osatuago bihurtzen zara musikari gisa. Txikitako ametsa betetzen ari naiz, beraz, ezin gehiago eskatu.

Gozategi zuzenean

Iñigo eta Imanol Goikoetxea anaiak kide dituen Gozategiren ibilbidea jasotzen duen zuzeneko argitaratu dute: "Gozategi 25 urte". Hartan taldeak udan lagunekin emandako hiru kontzertu bereziren irudiak jasotzen dira DVD batean jaso dituzte. Dokumentala dago, baita zuzeneko jasotzen duen CDa ere; "plazak ematen duen indarra sumatzen da".



WWW.GOZATEGI.EUS

Juanpa Agirre abeslaria Iruñea Kantuan V. jaialdian

Angel Mariezkurrenaren antolatuta, larunbatean, 20:00etan, Iruñeko Baluartearen areto nagusian euskal kultura jaialdia hartuko du bosgarren aldiz, Iruñea Kantuan. Hitzordu horretan euskal musikari eta abeslari ospetsuek hartuko dute, betiko eta egungo kantuak eskainiz. Mariezkurrenaren azaldu duenez, emanaldiaren helburua ikus-

tzuleen parte hartze aktiboa bultzatzea da. Horregatik, areto pantaila handian kantuen letrak emanen dituzte. Abesti ezagunekin batera dantzak ere izanen dira. Xabier Euskitze aurkezle dela makina bat musikari pasako dira oholtzatik, asko eta asko ezagun askoak. Horien artean dago Juanpa Agirre. Etxarriarra Akelarre talde ohiarekin zenbait kontzertu eman zituen udaberriaren eta, gaur egun, 4nek taldeko kidea da. Publiko guztiendako emanaldia da.



Larunbatean Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordeak antolatutako txangoan parte hartu zutenetako batzuk, Berdote tartean. C.R.

"Euskararen erabilera sustatu nahi dugu Urdiainen"

Aurreko urtean martxan hasi zen Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordea. Patxi Berdote Hernandez taldekideak burutzen ari diren ekimenen berri eman digu

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN

1 Nola sortu zen Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordea?

Urdiaingo udaletxeko egungo udal taldea sortu genuenean, kezka handienetako bat izan zen ikustea nola euskara geroz eta gehiago ari ginen galzten kalean. Orduan zerbait egitea erabaki zen, eta prozesu horren bukaeran Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordea sortu zen.

2 Bereziki haur eta gazteen artean ari da jaisten euskararen erabilera edo orokorra da?

Esango nuke orokorra dela, baina taldea sortzerakoan erabaki genuen euskararen erabilera adin zehatz batekin lantzea, 6 eta 12 urte bitarteko neska mutilekin.

3 Paradoxa da. Haur gehienek D ereduan ikasten dute eta kale erabilpenean gaztelania asko entzuten da.

Bai, kalean euskaraz hitz egiteko ohitura hori aldatzen ari da. Nik 10 urte daramatzat Urdiainen bizitzen, eta urte hauetan beharakada hori nabaritu dut. Horren aurrean zerbait egin behar zela erabaki genuen.

4 Aurreko urtean sortu zenuten guraso taldea, ezta?

2016ko martxoa aldera. Aurretik, Urdiaingo Udaletik Mank-eko Euskara Zerbitzura jo genuen, eta Izaskun Errazkin teknikariak Iñaki Eizmendik kudeatzen duen EBETE enpresaz hitz egin zigun. Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen dituzte. Bilera deitu genuen berarekin, jende dexente joan zen eta hortik abiatu ginen Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordea sortzeko.

5 Antolatutakoan artean "euslie" kanpaina egin zenuten ia.

Bai, euskararen eusleak dira euskara eusten dutenak eta euskararen erabilera sustatzen dutenak. Gurasoek euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen. Euskararen "eusliek" ginela zioen txapa batzuk jarri genituen. Gure seme-alabei ejenplua eman nahi genien, gurasoek ere euskaraz hitz egiten dugula.

Iazko ekainean egin genuen kanpaina, hiru astetan. Aste bakoitzean 7 gurasok hartu zuten eusle izateko konpromisoa. "Euslie" txapa jantzi eta euskaraz aritu ziren.

6 Jendeak galdetzen al zuen ea zer zen txapa hori?

Kanpainarekin hasi aurretik ekimenaren berri eman genuen. Esparru ezberdinetan mugitzen den jendea izan zen euslie: eskolako eta ikastolako gurasoak, futboleko dabiltzan seme-alaben gurasoak...Lortu genuen ere herriko harakina, ileapaintzaila eta beste eusliek izatea, haurrekin bakarrik ez, helduekin ere euskara sustatzeko.

7 Zer moduz atera zen?

Oso positiboa izan zen, errepikatze modukoa. Eguraldi ona datorrenean, hurrengo urtean, atzera ere egin nahi dena. Kanpainari esker jende asko konturatu zen arazo larria zegoela euskararen erabileran, eta hori garrantzitsua da. Txipa aldatzea ez da erraza, baina horretan gaude.

8 Euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko bidean txangoak antolatzea erabaki zenuten.

Bai. Udaberrian bi data jarri genituen Bernoara txangoa egiteko, baina sekulako eguraldi

txarra egin zuen, eta azkenean larunbatean lortu genuen. 21 lagun elkartu ginen. Eguraldi txarra iragartzen zuten eta B plan bat ere prestatua genuen, baina azkenean Urriztin bildu eta berriki berreskuratu den Bernoa galtzadaraino joan ginen. Euskaldunak ginen gurasoek hartu genuen neska-mutikoak eramatearen ardura. Eta gustura ibili ginen. Taldetxotan banatu ginen, euskara erabiltzen ari ginela ziurtatzeko. Hasieran eguraldiak lagundu zuen, gero euria hasi zen eta busti egin ginen, baina euskararen alde, edozer gauza, bustitzea barne!

9 Hemendik aurrera zer? Txango gehiago etorriko dira? Bestelako ekimenak?

Bigarren ibilaldi bat egingo dugu, Jon Zufiaurren laguntzarekin. Bestalde, ideia batzuk ere baditugu: sukaldaritza tailerrak antolatzea, kirol jardueretan erabiltzen diren esamolde eta esapideak euskaratzea...

10 Esapide askotarako gaztele-rara jotzen dugu. Akaso hiztegi hori da osatu behar dena, gaztetxoek erabiltzen dituzten esamolde horiek euskaratzea...

Taldean aztertuko dugu. EBETEK gai hau landua dauka eta laguntza eman dezake. Dena den, hitz berriak ikasten hasi beharko dugu, kirolean eta gazteen hizkuntza eta esapide horietan janzteko.

11 Urdiaindaren batek Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordean parte hartu nahi badu, nora jo behar du?

Gugana etor daitezena, eta ongi etorriak izanen dira denak.

Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN



CAMPING
ARTAZA



Ekain berri

